Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkateordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamaseiko azaroaren bian, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipatutako jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a dos de noviembre de dos mil dieciséis y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren lehenengo atala irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

2016ko uztailaren 26an eta irailaren 2an Udalbatzak egindako bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.

PUNTO 1º

Aprobación de los borradores de acta correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 26 de julio y el 2 de septiembre de 2016.

2016ko uztailaren 26an eta irailaren 2an Udalbatzak egindako bilkurei zegozkien akten zirriborroak botazioan jarrita, ontzat eman dituzte honako emaitza honekin eta akta moduan utzi:

Sometidos a votación los borradores de actas correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 26 de julio y el 2 de septiembre, son aprobados con el siguiente resultado, siendo elevados a Actas:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de

Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

2. ATALA. Agiriak eta posta-bidezkoak.

Ez da ezeren berri eman, ez idatzagiri, ez intereseko ezein komunikazioren berri ere.

3. ATALA

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordetik.

1.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina eta Diru-laguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena, Eibar-Sahara Elkartearen diru-laguntza sartzeko.

Honako diktamen hau irakurri da:

Alkatearen proposamena ikusita,

Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

PUNTO 2º: Despachos y comunicaciones.

No se da cuenta de ningún despacho ni comunicación de interés.

PUNTO 3º

De la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio.

1.- Propuesta de modificación del anexo del Plan estratégico de subvenciones y modificación del anexo de subvenciones nominativas, para inclusión de subvención a Asociación Eibar-Sahara.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Vistas la propuesta de Alcaldía para

2016rako onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Diru-laguntza Izendunen Eranskina aldatzeko egindakoa.

modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2016,

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak bozkatu du proposamena eta emaitza hauxe izan da: Aldeko botoak 4 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, eta Jon Iraola) eta 4 abstentzio (Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre); Udal Osoko bilkurari erabaki hauek hartzeko proposamena egin dio:

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, y Jon Iraola) y 4 abstenciones (Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

Lehenengoa: Eibarko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatuko den diru-laguntza hau jasotzeko:

Primero: La modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención,

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | EFECTOS PRETENDIDOS | COSTE ANUAL | FINANCIACION | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Ayuda al programa “Vacaciones en Paz” años 2015 y 2016 de acogida a niños y niñas saharuis en familias de Eibar durante los meses de verano. (gastos de viaje) | Aliviar temporalmente las duras condiciones de un campamento de refugiados/as | Mejorar la calidad de vida de los niños/as saharauis. | 4.080,00 | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto | Tipo de subvención: nominativa |

Bigarrena: Diru-laguntza izendunen eranskinean derrigorrean egin behar den aldaketa egitea aurreko atalean adierazitako diru-laguntza izendunaren lerro berri hori jasotzeko:

Segundo: La necesaria modificación del anexo de subvenciones nominativas para recoger la nueva línea de subvención:

| DIRU-LAGUNTZA ILDOA- LINEA DE SUBVENCION | URTEKO KOSTUA - COSTE ANUAL | FUNTZIONALA-FUNCIONAL |
|---|---|---|
| HELBURUA: “Oporrak bakean” programari laguntzea, 2015-2016 urteetako udako hilabateetan ume sahararrak hartzeko (joan-etorriak ordaintzea) OBJETO: Ayuda al programa “Vacaciones en Paz” años 2015 2016 de acogida a niños y niñas saharuis en familias de Eibar durante los meses de verano. (gastos de viaje) 2016<br><br>ONURADUNA: BENEFICIARIO: Eibar Sahara Elkartea (G57057083) | 4.080,00€ | 231.80 |
| | | |

Errasti jaunak hitza hartu du eta esaten du bere Taldearen iritziz egokia da Diru-laguntzen Eranskinean Eibar-Sahara Elkartea sartzea, baina lehenago egin behar zen, oraindik ere, 2015eko udarako diru-laguntza dela eta, elkartea bueltak ematen ari direlako.

Gaineratzen du 2017ko aurrekontuei begira, laguntza hori urtero txertatzeko diru-laguntzatzat sartu beharko litzatekela.

Interviene el señor Errasti quien afirma que su Grupo considera procedente incluir en el Anexo de Subvenciones a esta Asociación Eibar-Sahara aunque se tenía que haber hecho antes, pues todavía se está a vueltas con la ayuda para el verano de 2015.

Añade que dado que se van a elaborar los presupuestos del 2017, consideran que se debería de incluir esta ayuda con el carácter de anual.

Ondoren Ibañez andreak hartu du hitza. Esaten du aurreko Udal Osoko bilkuran, ume sahararren bidaia-gastuak onartu zirenean, bere Taldea abstenitu egin zela gai hau beste gastu batekin batera ekarri zelako, hain zuzen ere, Mankomunitatearenarekin batera, baina, gaur, berek aldeko botoa emateko aukera dutela, pozik jarriko liratekelako, ez bakarrik hiru ume etorriko balira, hogeita hamar baizik; etorri behar diren guztiak etor daitezela, denbora-tarte txiki batean bada ere, ume horien oinarrizko premiak ase daitezen eta bizitzea tokatu zaien egoera kaotikoa ahaztu dezaten.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien afirma que cuando en el anterior Pleno se aprobaron los gastos de viaje de los niños saharauis, su Grupo se abstuvo porque se trajo el tema en un paquete junto con otro gasto para la Mancomunidad; pero que hoy tienen la posibilidad de dar su voto a favor, pues estarían encantados de que no sólo viniesen tres niños; sino treinta, y todos los que hagan falta para que por lo menos, en un tiempo corto, tuvieran cubiertas sus necesidades básicas, y se olvidasen de la situación caótica que les está tocando vivir.

Aguirre andreak esaten du zeharo ados dagoela esandakoarekin; gainera, bera Gabon batzuetan Saharan egon zela, eta haiek nola bizi diren ikusita, benetan txundituta geratu zela.

Afirma la señora Aguirre que está totalmente de acuerdo con lo que se ha dicho, ya que además ella estuvo personalmente unas navidades en el Sahara, y que verdaderamente le impactó la a forma en que viven.

Gaineratzen du ados dagoela irizpenarekin, eta berak ere uste du hobe izango litzatekela diru-laguntza hau aurrekontuan jasotzea.

Añade que está de acuerdo con el dictamen y que también cree que sería mejor recoger en el presupuesto esta subvención.

Alkate jaunak adierazten du agian komeni dela Aurrekontuan partida orientatzaile bat irekitzea, eta gero, partida hori premietara egokitzea.

Indica el señor Alcalde que pueda que sí sea conveniente abrir una partida orientativa en el Presupuesto, y luego ajustarla a las necesidades.

Irizpena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba por unanimidad.

2.- Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak egindako proposamena 2017ko tarifak onartzeko.

2.- Propuesta de la Asociación Guipuzcoana del Taxi de aprobación de tarifas auto-taxi, para el año 2017.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak egin duen idatzian azaltzen duenez, jarduera horretan aritzeko kostuen egituran oinarrituta egindako azterketa ekonomikoaren eta, oro har, egoera ekonomikoaren arabera, ez du uste datorren urterako, 2017, tarifa-igoera eskatzea komeni denik, eta onartu zen

"La Asociación Gipuzkoana del Taxi expone en su escrito que, según el estudio económico realizado y la situación económica en general, basándose en la estructura de costes para el desempeño de la actividad, no cree conveniente solicitar subida de tarifas para el próximo año 2017

azken tarifa hari eutsi behar zaiola deritzo. Horren ondorioz, Udal honek onartutako azken tarifa hura mantentzea eskatu dute.

manteniéndose en vigor la última tarifa aprobada, por lo que solicitan mantener la última tarifa de taxi aprobada por ese Ayuntamiento.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozketara eraman du eta aldeko 5 botorekin (De los Toyos, Arrizabalaga, Albístegui, Iraola eta Aguirre) eta 3 abstentziorekin (Errasti, Ibáñez eta Juez), Udalbatzari, proposamen hau egin dio:

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta y con 5 votos a favor de (De los Toyos, Arrizabalaga, Albístegui, Iraola y Aguirre) y 3 abstenciones de (Errasti, Ibáñez y Juez) propone al Pleno Municipal:

Aurrena: Onartzea 2017rako aurkeztutako proposamena, Eibarko Udalak onartu zituen azken taxi-tarifa hauek bere horretan mantentzekoa:

Primero: Aprobar para el año 2017 la propuesta presentada de mantener las últimas tarifas de taxi aprobadas por el Ayuntamiento de Eibar y que son las siguientes:

| 2017rako TARIFA PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2017 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TARIFA 1*/ 1. TARIFA | | | 2. TARIFA / TARIFA 2** | | |
| GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZEKO / Kilómetro recorrido | ITXARON ORDUA /Hora de espera | GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZA / Kilómetro recorrido | ITXARON ORDUA / Hora de espera |
| 5,0153 | 1,2559 | 16,7861 | 5,4610 | 1,3899 | 17,6509 |

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaron-aldia hartzen du.

La tarifa mínima incluye 1,5 Km. De recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hori lanegun edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hori egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Bestalde, II. Tarifa hori, domeketan goizeko 7etatik gaueko

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas a las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa

10etara (07:00-22:00), eta autonomia eta tokiko arautegian finkatutako jai egunetan aplikatuko da, baita zapatuetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

Bigarrena: Espedientea Euskadiko Prezioen Batzordera bidaltzea, tarifa horien berrikuspenerako espedientearen tramitazioari bide eman diezaion."

Aguirre andreak dio bera abstenitu egingo dela ez duelako datuak alderatzerik izan.

Aurreko diktamena bozkatu ondoren onartu egin da honako emaitza honekin:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Juez Garmendia, López de Gereñu Urisabel, Garate Larrañaga,

II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

Segundo: Remitir el expediente a la Comisión de Precios de Euskadi, a fin de que dé curso a la tramitación del expediente de revisión de tarifas de referencia."

Indica la señora Aguirre que se va a abstener porque no ha podido confrontar los datos.

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate

Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

3.- Erisono Industrialdearen UT-2 partzelan haize-sorgailuen abatz eta pala-errodamenduen saiakuntza-bankua jartzeko obrei dagokien Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kuotan % 60aren hobaria eskatu da.

3.- Solicitud de bonificación del 60% de la cuota del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras correspondientes a las obras para la ejecución del Banco de ensayos de rodamiento de pala y buje en la parcela UT-2 del polígono industrial Erisono.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Ikusita:

“Vistos:

Sprilur SA sozietateak egindako eskaera, Erisono Industrialdearen UT-2 partzelan haize-sorgailuen abatz eta pala-errodamenduen saiakuntza-bankua jartzeko obrei dagokien Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kuotan % 60aren hobaria eskatzen.

La solicitud presentada por Sprilur, S.A. de bonificación del 60% de la cuota del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras correspondiente a las obras para la ejecución del Banco de ensayos de Rodamiento de Pala y Buje en la parcela UT-2 del polígono industrial Erisono.

Gai honen inguruan Errenta eta Diru-bilketa teknikari andreak hauxe azaldu du:

El informe sobre este asunto de la Técnica de Rentas y Recaudación siguiente:

Aurrena.- 2016ko irailaren 22an, Udal honetako Erregistro Orokorrean, SPRILUR SAren idatzia sartu zen, zeinaren bidez Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kuota arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 5.5 artikuluak

Primero.- Que, con fecha 22 de septiembre de 2016, tuvo entrada en el Registro General del Ayuntamiento escrito por el cual, SPRILUR, S.A. solicitaba, la aplicación de la bonificación regulada en el artículo 5.5

araututako hobaria aplikatzea eskatzen zuen, Erisono Industrialdearen UT-2 partzelan haize-sorgailuen abatz eta pala-errodamenduen saiakuntza-bankua jartzeko egingo dituen obrei dagokien zerga horren kuotan aplikatzea, alegia.

de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras en la cuota de dicho Impuesto correspondiente a las obras que va a realizar dicha Sociedad para la ejecución del Banco de Ensayos de Rodamiento de Pala y Buje en la parcela UT-2 del Polígono Industrial Erisono.

Hurrena.- Ordenantza Fiskalaren 5.5 artikulu aipatu horrek hauxe ezartzen du:

Segundo.- Que el referido artículo 5.5 de la Ordenanza Fiscal establece que:

*“5.- % 60aren hobaria izango dute ERISONO izena ematen zaion sektorean Sektore Publikoko erakundeek egindako eraikuntzek, instalazioek edo obrek, betiere, interes berezikotzat edo udal erabilgarritasunekotzat deklaratuta badaude. Deklarazio hori justifikatzeko, erakunde horiek enplegua sortu behar dute eta industria-jarduera sustatu. Deklarazio hori Udalbatzarrak onartu beharko du eta subjektu pasiboak aurretik eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.*

*“5. Gozarán de una bonificación del 60 % las construcciones, instalaciones u obras realizadas por entes pertenecientes al Sector Público, en el sector denominado ERISONO, que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por motivo de creación de empleo y fomento de la actividad industrial, que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la corporación y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros”.*

Hirugarrena.- Beraz, saiakuntza-banku hori egiteko obrek Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren % 60aren hobaria izan dezaten, beharrezkoa da obra horiek interes berezikotzat edo udal erabilgarritasunekotzat deklaratzea, enplegua sortu dutelako eta industria-jarduera sustatzen dutelako. Deklarazio

Tercero.- Que, por tanto, para que las obras correspondientes a la ejecución de dicho Banco de Ensayos puedan gozar de la bonificación del 60 % del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras es necesario que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por motivo de

hori egitea Udalbatzarrari dagokio, eta subjektu pasiboak aurretik eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

creación de empleo y fomento de la actividad industrial. Dicha declaración corresponde al Pleno de la corporación y, previa solicitud del sujeto pasivo, se ha de acordar por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

Aurretik azaldutakoaren arabera, Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu du, eta aldeko 4 botorekin (De los Toyos, Arrizabalaga, Albistegui eta Iraola) eta 4 abstentziorekin (Errasti, Ibáñez, Juez eta Aguirre), honako proposamen hau egiten dio Udal Osoko bilkurari:

Que, por lo anteriormente expuesto, la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta y con 4 votos a favor de (De los Toyos, Arrizabalaga, Albístegui e Iraola) y 4 abstenciones de (Errasti, Ibáñez, Juez y Aguirre) propone al Pleno Municipal:

Lehena: Erisono Industrialdearen UT-2 partzelan haize-sorgailuen abatz eta pala-errodamenduen saiakuntza-bankua egiteko obrak *interes berezikotzat edo udal erabilgarritasunekotzat deklaratzea*, enplegua sortzen dutelako eta industria-jarduera sustatzen.

Primero: Declarar de *especial interés o utilidad municipal por razón de creación de empleo y fomento de la actividad industrial,* la ejecución del Banco de ensayos de Rodamiento de Pala y Buje en la parcela UT-2 del polígono industrial Erisono.

Bigarrena: Obretako Lizentziaren % 60aren hobaria aplikatzea."

Segundo: Aplicar un 60 % de bonificación a la correspondiente Licencia de Obras."

Errasti jaunak hartu du hitza aurrenik. Esaten du eolikoen saiakuntza-bankua eraikitzean Eibar berriro aitzindari dela energia berriztagarrietan, eta Talde guztiek beti esan izan dute horretarako aukera asko dagoela, baina bere Taldeak gogora ekarri nahi du beharrezkoa dela Eibarko Energiaren Plangintza bat idaztea, ekintza

Interviene en primer lugar el señor Errasti quien afirma que con esta construcción de ensayos de eólicos, Eibar vuelve a ser pionera en energías renovables y que siempre los diferentes grupos han dicho que hay mucho potencial para ello; pero que desde su Grupo sí desean recordar

horiek ez daitezen izan hutsaren peskizan egindakoak, helburu zehatz eta jakin batera daramaten ekintzak baizik.

que es necesario redactar un Plan de Energía de Eibar para que estas acciones no sean acciones sin ton ni son; sino que lleven a un objetivo definido.

Ondoren Ibañez andreak hartu du hitza. Hasteko esan du lehenengo minututik hasi zela bere Taldea Sprilur-ekin gai honen inguruan lan egiteko premia zegoela esaten, Eibarren enpresak ezartzeko aukera ahalbidetuko duten baldintzak izateko, balio-erantsi handiko enpresak lehenetsiz, energia eolikoko entseiu-bankua bezala; eta hori albiste on bat dela, proiektu hau beste leku batzuetan ere gustura hartuko zutelako.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien comienza diciendo que desde el minuto uno su Grupo defendió la necesidad de trabajar con Sprilur en este tema para aportar condiciones favorables que posibiliten la implantación de empresas en Eibar, priorizando las de alto nivel añadido, como el banco de pruebas de energía eólica; y que es una buena noticia porque este proyecto también gustaba en otros entornos.

Ekimen hau, dio Ibañez andreak, 2014an ipini zen martxan Eusko Jaurlaritzaren bultzadari esker, eta hauxe du helburutzat: euskal enpresek sektore eolikoan duten gaitasuna garatzea; enpresa horiei nazioarteko merkatuan kokatzen laguntzea.

Esta iniciativa, continúa, se pone marcha en 2014 con el impulso del Gobierno Vasco, y tiene como objetivo desarrollar las capacidades de las empresas vascas en el sector eólico y contribuir a su posicionamiento en el mercado internacional.

Gaineratzen du energia eolikoa dela energia-iturririk helduena eta lehiakorrena; etengabe hobetzeko prozesuan murgilduta dagoena, eta I+G egiten diren inbertsioei esker energiaren kostua murrizten uzten dio. Testuinguru horretan, dio, potentzia handiagoko haize-sorgailuak garatu behar dira, eraginkorragoak eta errentagarriagoak.

Añade que la energía eólica es una de las fuentes de energía más madura y competitiva, inmersa en un proceso de mejora continua, y que gracias a las inversiones en I+D le permite seguir reduciendo el coste de la energía, y que en este entorno es necesario desarrollar aerogeneradores de mayor potencia, más eficientes y rentables.

Horretarako, dio Ibañez andreak, euskal

A tal fin, prosigue, las empresa vascas,

enpresak, Gamesak esate baterako, Energiaren Klusterrarekin elkarlanean arituta, fabrikazio-zentro aurreratu bat ari dira garatzen, IK4aren instalazioetan kokatua, eta horrela, Zentro horrek, entseiu-banku bat garatu ahal izango du pasoko angelu-aldaketaren sistemarako. Horrela, osagai eolikoak fabrikatzen dituzten enpresek haize-sorgailuen pasoko angelu-aldaketako sistema frogatu eta optimizatu ahal izango dute.

como Gamesa, en colaboración con el Cluster de Energía, están desarrollando el centro de fabricación avanzada eólica, ubicado en las instalaciones de IK4, permitiendo este Centro desarrollar un banco de ensayos del sistema de cambio de paso, por el que las empresas fabricantes de componentes eólicos podrán probar y optimizar el sistema de cambio de paso en los distintos generadores.

Geroxeago dio ekimen honen aurrekontu osoa 13,5 milioikoa dela, eta Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioiko diru-laguntza eman duela; eta, gainera, proiektua kudeatu zenean, entseiu-bankua beste leku berri batera eramatea erabaki zenez —hain zuzen ere Erisono Poligonoaren UT 2ra, Sprilurren jabetzakoa—, Sprilurrek egokituko duela partzela edo lursail hura, eta egokitzapen horrek 1,2 milioi eurotik gertu izango den inbertsio bat ekarriko duela.

Dice más adelante que el presupuesto total de esta iniciativa es de 13,5 millones, con una subvención del Gobierno Vasco de 4,5 millones y que, además, como en el transcurso de la gestión del proyecto se acordó trasladar a una nueva ubicación el banco de ensayos, y en concreto a la UT 2 del Polígono de Erisono, propiedad de Sprilur, ésta va a acondicionar la parcela y dicho acondicionamiento puede suponer una inversión próxima a los 1,2 millones.

Gaineratzen du Ibañez andreak instalazioak handitzeko premia balego, lehenetsiko litzatekeen kokapena Erisono izango zela.

Añade que también se habla de que, en caso que fuera necesario ampliar instalaciones, la ubicación fuese preferentemente Erisono.

Amaitzeko esan du bere Taldeak aldeko botoa emango duela, ezbairik gabe, azken finean, honek enplegua sortzea dakarrelako, industria-jardueraren sustapena eta ekipamenduetakoa.

Finaliza afirmando que su Grupo a votar a favor porque no puede ser de otra manera, pues en definitiva es generar empleo, fomentar la actividad industrial, y de equipamientos.

Aguirre andreak dio Irabazi energia

Afirma la señora Aguirre que siendo

berriztagarri diren gauza guztietan oso alde egoten bada ere, oraingo kasu honetan abstenitu egingo dela proba guzti horiek ingurumenean nolako eragina izango duten jakin arte, baserri-ingurune batean horrek ekar ditzakeen kalteak eta ondorioak ez direlako ezagutzen, alde hartan bizi direnei eragin diezaieketenak.

Irabazi muy favorable a todo lo que sean energías renovables, se va a abstener en este caso, hasta que no se sepa la incidencia en el entorno de todas estas pruebas, de las que se desconocen los daños y consecuencias que pueden tener en un entorno rural, y que pueden afectar a los habitantes de la zona.

Alkate jaunak dio eraikuntza-zergaren zenbatekoan % 60aren hobaria ezartzea dela orain egin nahi dena, baina kudeaketa-lan handi bat dagoela atzean entseiu-banku hau eta beste batzuk Erisonon koka daitezen.

Afirma el señor Alcalde que se trata ahora de aprobar una bonificación del 60% en el importe del impuesto de construcciones, pero que hay todo un trabajo de gestión para que este Banco de pruebas, y otros, se ubiquen en Erisono.

Alkateak gaineratzen du gai honek duen garrantzia ikusteko, entseiu-banku hau beste askok nahi zutela jakitea baino ez dela behar, beraz, bere iritziz denen lorpena da Eibarren kokatzea, eta, gainera, leku hartan energia berriztagarrienak leku gehiago hartu behar badu, hori lortu ahal izateko ondo kokatuta egotea.

Añade que su grado de importancia viene reflejado por el interés de otros muchos en este Banco de pruebas, por lo que considera un éxito de todos que se haya conseguido que la ubicación sea en Eibar, y que además, caso de ampliación de energías renovables dentro de este entorno, se esté bien posicionado para poder conseguirlo.

Ondoren Telleria andreak hartu du hitza, eta Aguirre andreari esaten dio, Batzordean aipatu zen bezala, sustatzaileek neurri-zuzentzaileen plan bat aurkeztu dutela, pantaila akustikoak jarriko direla eta sortuko den zarata toleratzeko mugen barruan dagoela. Telleria andreak

Interviene a continuación al señora Telleria para indicar a la señora Aguirre que tal como se comentó en la Comisión, los promotores han presentado un plan de medidas correctoras, que se van a instalar pantallas acústicas, y que el ruido que

dio, batzordean aipatu zen bezala, sortuko den zarata aire egokitu baten parekoa izango zela.

se va a generar está dentro de los límites tolerados, comentándose que el ruido que se podría generar sería similar al de un aire acondicionado.

Irizpena bozkatu eta aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba por unanimidad.

4.- Antonio Campos Mingorance jaunak DINERCAR ATRES SL enpresaren administratzaile den aldetik egindako eskaera, Caixabank SAk emandako maileguaren berme gisa, Txaltxazelaiko aparkalekuaren ustiapenaren emakida hipotekatzeko.

4.- Solicitud presentada por Don Antonio Campos Mingorance, en su condición de administrador de la empresa DINERCAR ATRES S.L. para hipotecar la concesión de la explotación del aparcamiento de Txaltxa Zelai en garantía de préstamo concedido por Caixabank S.A.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Antonio Campos Mingorance jaunak DINERCAR ATRES SL enpresaren administratzaile den aldetik egindako eskaera, Caixabank SAk emandako maileguaren berme gisa, Txaltxazelaiko aparkalekuaren ustiapenaren emakida hipotekatzeko.

"Vista la solicitud presentada por Don Antonio Campos Mingorance en nombre y representación de DINERCAR ATRES S.L., para la constitución de una hipoteca sobre la concesión de explotación del aparcamiento de Txaltxa Zelai, en garantía de un préstamo concedido por CAIXABANK S.A.

Kontratazio eta Diru-laguntza Ataleko Zuzendariak hauxe azaldu du bere txostenean:

Visto el informe del Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones en el que expone:

1.- 2016ko uztailaren 26an Udal Osoko bilkurak baimena eman zuen

1.- Que con fecha 26 de julio de 2016, el Pleno municipal acordó autorizar la

Txaltxazelaiko parkingaren zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratua, administrazio-emakida bidez, DINERCAR ATRES SL sozietatearen eskuetan lagatzeko. Ordura arteko titularra GESPARK INVERSIONES 2008 SL zen, likidazioan dagoena.

cesión del contrato de gestión, mediante concesión administrativa, del servicio público de Parking de Txaltxa Zelai, de la que era titular GESPARK INVERSIONES 2008 SL, EN LIQUIDACIÓN, a favor de DINERCAR ATRES SL.

2.- Lagapen hori eskritura publikoan jaso zen, 2016ko irailaren 28an, Vitoria-Gasteiz-eko Luis Perez de Lázarraga Villanueva notario jaunaren aurrean, haren protokoloaren mila eta berrogeita hemeretzi zenbakiarekin.

2.- Que la cesión ha sido formalizada en escritura pública otorgada el 28 de septiembre de 2016, ante el notario de Vitoria-Gasteiz, Don Luis Pérez de Lazárraga Villanueva, con el número mil cincuenta y nueve de su protocolo.

3.- Era berean, 2016ko urriaren 18an, DINERCAR ATRES SLek behin-betiko bermea utzi zuen, 53.850,68 €-koa.

3.- Que, así mismo, con fecha 18 de octubre de 2016 DINERCAR ATRES SL ha constituido la garantía definitiva, por importe de 53.850,68€

4.- Administrazio emakida batekin, berme izateko helburuz, hipoteka eskubide erreal bat eratzea eta hura hipotekaren eraginpean nahitan uztea zilegi dela eta onartua dagoela erregistro-legeriaren aldetik. Hala da: Hipoteka Legearen 107.6 artikuluak hipotekagarritzat hartzen ditu hauek: “*Meatze, trenbide, kanal, zubi eta herri-zerbitzura zuzendutako beste edozein obrari buruzko administrazio-emakidak, edota herri-zerbitzura zuzenean edo modu esklusiboan zuzenduta ez dauden erakin eta lurrak, eraikin eta lurrok jabari pribatukoak izan arren, obra horiei erantsita daudenean; lehenengo kasuan, hipotekak bere*

4.- Que la procedencia de la afectación voluntaria de una concesión administrativa con fines de garantía, a través de la constitución de un derecho real de hipoteca, está admitida por la legislación registral. En efecto, el artículo 107.SEXTO de la Ley Hipotecaria declara hipotecables *“Las concesiones administrativas de minas, ferrocarriles, canales, puentes y otras obras destinadas al servicio público, y los edificios o terrenos que, no estando directa y exclusivamente destinados al referido servicio, pertenezcan al dominio particular, si bien se hallen agregados a aquellas obras, quedando*

*horretan irauten du, emakidadunaren eskubidea suntsiarazi arte.*"

*pendiente la hipoteca, en el primer caso, de la resolución del derecho del concesionario."*

5.- Argitu behar da hipoteka horiek emakidarenak bereak direla; edo zehatzago adierazita, emakida-eskubidearenak. Eskubide hori denbora jakin baterako eskubidea eta eskubide ezeztagarria izanik, legez, emakida-emaileak duen eskubide-amaieraren menpe daude hipotekok emakida amaitutzat emateak edo mozteak sor dezakeen edozein gora beheraren aurrean (emakida-epea amaitzea, erreskatatzea, moztea, aldez aurretik itzultzea…).

5.- Que hay que aclarar que estas hipotecas lo son de la concesión en sí misma; del derecho de concesión, más exactamente; de ahí que siendo éste un derecho temporal y revocable, queden legalmente sometidas a la resolución del derecho del concedente por cualquiera de las eventualidades que puedan provocar la extinción de la concesión (vencimiento del plazo de otorgamiento, rescate, resolución, reversión anticipada, etc.).

Proposamenaren inguruan eztabaidatu ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare lan batzordeak proposamena bozkatu du eta emaitza hauxe izan da: Aldeko botoak 4 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola) eta 5 abstentzio (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez, eta Mª Jesús Aguirre); horren ondoren, Udal Osoko bilkurari erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

Se debate sobre la propuesta y a continuación la Comisión de trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la misma con los siguientes resultados: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga y Jon Iraola) y 5 abstenciones (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno adoptar el siguiente acuerdo:

Baimena ematea Txaltxazelaiko aparkalekuaren ustiatze-emakidaren hipoteka eratzeko, DINERCAR ATRES SLek CAIXABANK SAri eskatu eta horrek emandako maileguaren berme gisa."

Autorizar la constitución de la hipoteca sobre la concesión de explotación del aparcamiento de Txaltxa Zelai, en garantía de un préstamo concedido por CAIXABANK SA, solicitada por

DINERCAR ATRES S.L.”

Aurreko diktamena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

5.- *San Andres Nagusien Egoitza* Fundazioaren Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien 1. Espedientea.

5.- Primer expediente de Créditos adicionales del Presupuesto de la Fundación Residencia de Ancianos San Andrés.

Honako diktamen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“2016. urteko San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuari dagozkion partidetan

“Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto de la

izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés para el Ejercicio 2016, se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren 2016ko Kreditu Gehigarrien Aurreneko espedientearen inguruan Alkatetzak egin duen proposamena aztertu da; baita Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ere.

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés, así como el informe del Interventor,

Proposamenaren gainean eztabaidatu dute eta, ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu du. Hona hemen egindako bozketaren emaitza: 4 boto alde (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga eta Jone Iraola) eta 5 abstentzio (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre). Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzari proposamen hau egiten zaio: San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Aurreneko Espedientea onartzea. Hona hemen zenbatekoak:

Se debate sobre la propuesta y a continuación la Comisión de trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con los siguientes resultados: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga y Jon Iraola), y 5 abstenciones (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal la aprobación del Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andres cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA / RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA / PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 120.000,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 120.000,00 |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferenc.corrient. | 120.000,00 |
| TOTAL igual a los aumentos | | 120.000,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA / CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 120.000,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 120.000,00 |

Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin."

Errasti jaunak hartu du hitza. Esaten du Fundazioak 120.000 euro gehiago behar dituela pertsonal-gastuak ordaintzeko eta bere Taldeak gai hau tratatzen ari dela eta, abagune honetaz baliatu nahi duela hango langileen egoera eta haien lan-baldintzak argitzeko, oposizioak 2009tik daudelako egitekotan.
Gaineratzen du, jakineko gauza bada ere, Fundazioa 2017an sartu beharrean 2019an sartuko dela Kabian, beraz hiru urte falta dira han sartzeko eta langileak 'linbo'an egongo dira denbora-tarte horretan, eta han sartzeko data ezagutzen denez, Udala bera dela langile horien lan-baldintzak egonkortzeko ardura duena.

Alkate jaunak dio, Udalak, Foru Aldundian gobernatu izan duenaren kolore politikoa alde batera utzita, leiala izan dela Kabian sartzeko prozesu horretan: EAJ nahiz Bilduko diputatuek, Udalari, argazki finkoa mantentzea eskatu diote, hau da: integrazio-prozesua egin arte, 2008ko lan-

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 120.000,00 |
| TOTAL Créditos en aumento | | 120.000,00 |

Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública."

Interviene el señor Errasti quien afirma que la Fundación precisa de 120.000 euros más para abonar los gastos de personal y que su Grupo desea aprovechar este tema para pedir que se clarifique la situación de las trabajadoras y sus condiciones de trabajo, ya que hay oposiciones pendientes desde el 2009.
Añade que ya se sabe que en vez de en el 2017, la Fundación se integrará en Kabia en el año 2019, por lo que faltan tres años en los que las trabajadoras estarán en el limbo, y que dado que ya se sabe la fecha de integración, el Ayuntamiento es responsable de la estabilidad de estas trabajadoras.

Afirma el señor Alcalde que el Ayuntamiento, independientemente del color político que haya gobernado en la Diputación, ha mantenido lealtad en el proceso de incorporación en Kabia; en el sentido de que tanto diputados y diputadas del PNV, como de Bildu, han

eskaintzaren plazak ez ateratzea eskatu diote.

solicitado al Ayuntamiento que intente mantener la foto fija; esto es, no sacar las plazas de la oferta del 2008, en tanto no se haga el proceso de integración.

Alkateak gaineratzen du Fundazioko Enpresa Batzordeari berak eskatu ziola langileen asanblea bat egitea, eta oposizioa egiteko eskaera hori idatziz egitea, baina ez zutela horrelakorik egin, langileen artean ere badaudelako pertsona batzuk plaza ez ateratzera arriskatu nahi ez dutenak.

Añade que él solicitó al Comité de Empresa de la Fundación que hiciera una asamblea de trabajadores y solicitase por escrito el realizar la oposición, pero que no lo hicieron, ya que dentro de los propios trabajadores y trabajadoras, hay personas que no desean arriesgarse a no sacar la plaza.

Alkateak dio, bere ustez, orain, fetxa bat jarri denean —berari gustatzen ez zaiona, eta horregatik eskatu du bilera bat egitea diputatu andrearekin—, Foru Aldundiak EEP ez dadila atera eskatzen jarraitzen badu, gauzaren batengatik edo besterengatik lege-aginduren bat ez bada behintzat, berak hauxe proposatuko duela: Udalak Gizarte Zerbitzuetako diputatu guztiekin izan duen leialtasun horri eustea.

Cree que ahora, prosigue, cuando ya hay una fecha -que a él personalmente no le gusta y por ello ha solicitado una reunión con la Diputada-, si la Diputación Foral sigue solicitando que no se saque la OPE; salvo que haya imperativo legal por algún movimiento, va a proponer que el Ayuntamiento mantenga esta lealtad que ha mantenido con todos los Diputados de Servicios Sociales.

Errasti jaunak dio bere Taldeak nahi duena hauxe dela: langileek duten ziurgabetasun hori jasota uztea, ja hamaika urte igaro direlako.

Indica el señor Errasti que lo que desea su Grupo es dejar constancia de la incertidumbre en la que están inmersas las trabajadoras, porque son ya once años.

Alkate jaunak dio horretaz jabetuta dagoela, baina berriro ere esan du langileen artean iritzi ezberdinak daudela horren inguruan, eta langile batzuk orain duten egoera horri eutsi nahi diotela, dokumentuan, Kabian

Afirma el señor Alcalde que es consciente de ello, pero insiste en que hay disparidad de opiniones dentro del personal, y que hay algunas trabajadoras que prefieren mantener su

aldi baterakoa bermatzen zaielako.

situación porque en el documento se les garantiza una temporalidad en Kabia.

Alkateak gaineratzen du kreditu-aldaketa hau aurreikusitakoa zela, izan ere, lege-aginduz, I. Kapituluko gastuetan muga batzuk baitzeuden, baina herentzia bat jaso denez, Fundazioari ere ez diola gastu gehiago ekarriko.

Añade que esta modificación de créditos es una modificación prevista, ya que por imperativo legal, había unos límites para el gasto del capítulo I; pero que como se ha recibido una herencia tampoco va a suponer mayores gastos para la Fundación.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Abstenciones: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

4. ATALA. Premiak.

PUNTO 4º Urgencias.

Presakoen edo premien tramitean, gai hauen berri eman da:

En trámite de urgencia, se da cuenta de los siguientes asuntos:

<u>2016ko Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Bosgarren espedientea.</u>

<u>Quinto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2016.</u>

Kontu, Ogasun eta Ondare Batzordearen irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Cuentas Hacienda y Patrimonio:

“2016. jardunaldirako Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

“Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2016; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Udal Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien Bosgarren espedientearen inguruan Alkateak egin duen proposamena, eta Kontu-hartzaile jaunak espediente horren inguruan egindako txostena ikusita,

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el Quinto expediente de créditos adicionales del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el expediente,

Kontu Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozkatu du eta emaitza hauxe izan da: Aldeko botoak 7 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre) eta 2 abstentzio (Gorka Errasti eta Igone Lamarain). Horren ondorioz, Udalbatzari Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Bosgarren espedientea ontzat hartzea eskatu dio, honako zenbateko hauek dituena:

A continuación la comisión de trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con los siguientes resultados: 7 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre) y 2 abstenciones (Gorka Errasti e Igone Lamarain)en consecuencia propone al Pleno Municipal la aprobación del Quinto

expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA / RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA/ PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 200.000,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 200.000,00 |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 200.000,00 |
| TOTAL igual a los aumento | | 200.000,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA / CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzi arruntak | 200.000,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 200.000,00 |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferenc. Corrientes | 200.000,00 |
| TOTAL Créditos en aument | | 200.000,00 |

Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin."

Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública."

Gaiak urgentzia edo premia duen deklaratzea bozketan jarrita, aho batez onartu da.

Sometida a votación la declaración de urgencia del asunto, se aprueba por unanimidad.

Interbentzioen txandan Errasti jaunak dio Enplegu Plangintzari aurrera eta atzera asko ematen ari zaizkiola "santua jantzi" nahian, eta, berak behintzat, bigarren traje hau behin betikoa izatea espero duela.

En turno de intervenciones, el señor Errasti afirma que se sigue a vueltas con el Plan de Empleo, intentando "vestir al santo" y que espera que este segundo traje sea el definitivo.

Gaineratzen du proiektu hau, hasieran, Eibarko enpresak diruz laguntzeko eta enpresei laguntzekoa zela, langileak kontratatzeko, eta orain “Enplegurako bide” bilakatu dela, lanik eza gehien sufritzen duten kolektiboen enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza-proiektu bilakatu dela.

Un proyecto, añade, que en su inicio era subvencionar y ayudar a empresas de Eibar para la contratación de personas trabajadoras y ahora se ha convertido en “Enplegurako Bidea”, que es un proyecto formativo para mejorar el empleabilidad de los colectivos que más sufren el desempleo.

Errasti jaunak jarraitu du esaten programa honek antzekotasun handia duela “Debabarrena integra bat eginez” izenekoarekin, Armeria Eskolan 2008tik martxan dagoen programa; proiektu hau lanik ez duten Eibarko pertsonentzakoa da, ez eskualdekoentzat.

Prosigue diciendo que este programa se parece mucho al denominado “Debabarrena integra bat eginez” que lleva funcionando desde el 2008 en la Escuela de Armeria, aunque este proyecto es para personas desempleadas de Eibar, y no de la Comarca.

Amaitzeko esan du “Debabarrena integra batera bat eginez” proiektuak nahiko ondo funtzionatu duela eta “Enplegurako Bidea” honek ere ondo funtzionatzea espero dutela. Hala ere, Ogasun Batzordean ikusi zen bezala, oraindik atal asko daude lotzeko, ebatzi gabe utzi ziren zalantzak daude.

Finaliza afirmando que el proyecto “Debabarrena integra batera bat eginez” ha funcionado relativamente bien y que esperan que “Enplegurako Bidea” funcione de la misma manera, aunque tal como se vió en la Comisión de Hacienda todavía hay muchos puntos que atar y dudas que no fueron resueltas.

Ostera, oraindik zalantzak argitzeke edukita, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteari 200.000 euroko diru-laguntza bat emateko proposamena egin da, dio Errasti jaunak; eta elkarte horrek lana ondo egiten duela dudatan jartzeke, esaten du bere Taldeak “Enplegurako bidea” horren behin betiko dokumentua jaso arte itxoin nahi duela, eta horregatik abstenituko direla.

Sin embargo, sin tener aún las dudas resueltas, se propone una subvención de 200.000€ a la Asociación de Antiguos Alumnos de la Escuela de Armería; e indica que, sin dudar del buen hacer de la misma, su Grupo quiere esperar al documento definitivo de “Emplegurako bidea” y que, por ello, se abstendrán.

Ibañez andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldeak 'Enplegurako plana' egin zuela tokiko enpleguarekin konpromiso argi bat duelako; eta, beraien iritziz, pertsonen gaitasuna garatzeko, prestakuntza delako hasierako aldirik funtsezkoena. Prestakuntza-programak enpleguarekin lotuta egon behar dute —dio—, enpresekin arituta eta horiek dauzkaten premien arabera eginda, horrela, langabetuek, lan-merkatura sartzeko aukera gehiago izan dezaten.

Segitu du esaten bere Taldeak beti defendatu duela elkarlana Armeria Eskolarekin, Unibertsitate Laboralarekin, IMHrekin eta Lanbiderekin.

Ematen du mahai gainean dagoen proposamena proiektua Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak egiteko asmoz ekarri dela, dio Ibañez andreak, eta proiektu hori, beraien iritziz, egokia dela.

Esaten du baita 200.000 euroko partida honekin eta horrek izan dituen "joan-etorriekin" gertatu denak, hausnarketa bat egin beharrean daudela Udalak etorkizunean izan behar duen jarduteko moduaz.

Gaur egun, dio Ibañez andreak, Udalaz gaindiko txosten batzuen eskuetan eta zein bidetik joko duen inork ez dakien ebazpen baten eskuetan gaude; txosten hori aldekoa izatea eta Elkarteak proiektua martxan jarri ahal izatea espero duela berak. Horrela ez balitz, dio, denen artean

Interviene la señora Ibañez quien afirma que su Grupo hizo el Plan de Empleo porque tiene un compromiso claro con el empleo local, y porque entiende que la formación es la fase inicial primordial para el desarrollo de las capacidades de las personas, y que los programas de formación tienen que estar ligados al empleo en conjunción con las empresas y sus necesidades, para que así los desempleados tengan más posibilidades de incorporase al mercado laboral.

Prosigue diciendo que su Grupo siempre ha defendido la colaboración con Armeria Eskola, la Universidad Laboral, IMH y Lanbide.

Parece que la propuesta que se trae encima de la mesa, añade, se trae con el fin de que sea la Asociación de Antiguos Alumnos la que realice el proyecto, proyecto que entienden que es adecuado.

Dice también que espera que lo que está ocurriendo con esta partida de 200.000 euros y sus "idas y venidas" les haga reflexionar con lo que tiene que ser la actuación futura municipal.

Actualmente, finaliza, se está en manos de informes ajenos al Ayuntamiento y de una resolución que no se sabe qué derroteros va a coger, que espera sea favorable y que la Asociación ponga en marcha el proyecto, y que de no ser así habrá que buscar entre todos un plan B

B plan bat bilatu beharko litzateke, udalerriko langabetuek ez dutelako merezi diru hori ez erabiltzea. Partida honek erabilgarritasuna eta emaitzak izatea espero du, esan du Ibañez andreak.

porque los parados y paradas del municipio no se merecen que ese dinero no se utilice, y que espera que esta partida tenga utilidad y resultados.

Ondoren Alkate jaunak hartu du hitza. Esaten du berak ere denek ikastea espero duela, batzuk eduki gehiagoko zuzenketak aurkez ditzaten, eta jarraitu nahi den bidea bilatzen hainbeste denbora eskatzen ez dutenak; eta Eusko Jaurlaritzak bikoiztasunari buruzko txosten bat bidaltzen duenean, burua ez dadila izkutatu; proposamenak egiteko orduan bakoitzak duen erantzukizuna har dezala. Proposamena ez dela, ez Alkatetzarena, ez Gobernu-taldearena, Irabazik eta EAJ/PNVek egindako zuzenketa baten ondorioa baizik, onartu eta jorratu dena. Eta gero etorri da Lanbideren txostena bikoiztasuna dagoela esaten. Hori denek hartu behar dutela beren gain.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien comienza diciendo que él también espera que todos aprendan, algunos presentando enmiendas con más contenido, y que no exija invertir tanto tiempo en encontrar el camino que se quiere seguir, y que a la hora de recibir un informe de duplicidad por parte del Gobierno Vasco, que no se esconda la cabeza y se asuma la responsabilidad que se tiene por hacer las propuestas. Que la propuesta no es ni del Acalde ni del Equipo de gobierno; sino fruto de una enmienda de Irabazi y del PNV, que se ha aceptado y se ha trabajado. Y que luego ha venido un informe de Lanbide donde dice que hay duplicidad. Lo cual hay que asumir por parte de todos.

Alkateak dio zuzenketak jomuga ondo zehaztua zutela aurkeztu izan baziren, akaso ez zela horrenbeste denbora galduko jomuga zehazten.

Afirma que si las enmiendas, se hubieran presentado con el tiro bien centrado, igual no hubiera que haber invertido tanto tiempo en centrar el tiro.

Gaineratzen du bide hori Lanbidetik planteatu zela, baina ez duela ehuneko ehunaren arrakasta izateko bermerik, Lanbidek, agian, ez duelako finantzatuko dagokion zatia; berak oharteman duela horretaz.

Añade que fue desde Lanbide desde donde se planteó este camino, pero que no tiene garantía de un cien por cien de éxito, porque Lanbide igual no financia la parte que le corresponde, y que así lo ha advertido.

Esaten du gauzak egiten utzi izan baziren,

Afirma también que si se hubiera dejado

honezkero oinarriak onartuta eta prozesua irekita egongo zela, baina Lanbidek uste du Udalak ezin duela lana bakarrean egin.

Lanbidek, dio Alkateak, enplegagarritasun aukera gutxiago duten kolektiboak bilatzen ditu, eta hori oso ondo dago, baina batzuetan hori ez dator bat enpresek nahi dutenarekin, beren premietara egokitzen diren beharginak nahi izaten dituztelako; horregatik, Lanbiderekin batera, kontratuak egiteko enpresentzako laguntzak atera zirenean, kolektibo espezifiko batzuen diru-laguntza ildoak bertan behera geratu zirenez horregatik erabaki zuen Udalak gaia bere gain hartzea, baina hori ezin izan da egin, eta, orain, proposamen hau egiten da.

Proposamen honek ez badu aurrera egiten, Lanbiderekin hitz egin beharko da, argi eduki behar baita enplegu alorrean Lanbiderekin batera joan beharra dagoela.

hacer ya estarían las bases aprobadas y el proceso abierto, pero que Lanbide considera que el Ayuntamiento no puede hacer el trabajo sólo.

Lanbide, continúa, busca colectivos con menos posibilidades de empleabilidad , lo cual está muy bien, pero a veces eso no coincide con las expectativas de las empresas, que buscan trabajadores que se adapten a sus necesidades, y por ello cuando conjuntamente con Lanbide se sacaron ayudas a las empresas para contratar, las líneas de subvención de los colectivos específicos quedaron desiertas, por lo que el Ayuntamiento decidió asumirlo, pero no ha sido posible y ahora se hace esta propuesta.

Si esta propuesta no cuaja, finaliza, habrá que hablar con Lanbide porque hay que tener claro que en tema de empleo hay que ir de la mano con Lanbide.

Aguirre andreak galdetu du diru-laguntza hau noiz jarriko den martxan, 2017tik aurrera edo beste fetxa batean.

La señora Aguirre pregunta cuándo se pone en marcha esta subvención, si a partir del 2017, o en otra fecha.

Alkate jaunak adierazten du Ikasle Ohien elkarteak Lanbideren baietza jasotzen badu, 200.000 euro horiek urtebeteko prestakuntza-ikastaro baterako izango direla, eta logikoena, 2017an egitea dela.

Indica el señor Alcalde que si la Asociación de Antiguos Alumnos recibe luz verde por parte de Lanbide estos 200.000 euros serían para un curso formativo de un año y que lo lógico es que se ejecute en el 2017.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Diru-laguntza Izendunen Eranskina aldatzeko proposamena

Kontu, Ogasun eta Ondare batzordearen irizpen hau irakurri da:

“Alkatearen proposamena ikusita, 2016ko onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Diru-laguntza Izendunen Eranskina aldatzeko,

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Propuestas de modificación del Anexo del Plan estratégico de Subvenciones y modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas.

Se da lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Cuentas Hacienda y Patrimonio:

“Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año

2016,

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak bozkatu du proposamena eta emaitza hauxe izan da: Aldeko botoak 7 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre) eta 2 abstentzio (Gorka Errasti eta Igone Lamarain); Udal Osoko bilkurari erabaki hauek hartzeko proposamena egin dio:

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 7 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre) y 2 abstenciones (Gorka Errasti e Igone Lamarain), y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

Lehenengoa: Eibarko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea, ondoren aipatzen den diru-laguntza jasotzeko:

Primero: La modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención,

| **DIRU-LAGUNTZA LERROA.** | **HELBU-RUAK** | **EMAITZAK.** | **URTEKO KOSTUA.** | **Finantzaketa:** | **DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.** |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteari “Enplegurako Bidea” proiekturako laguntza ematea. | Eibarren lanik ez duten 100 pertsonaren enplegagarrita-suna handitzea. | Prestakuntza-fasea gainditzen duten pertsonen artean % 30aren kontratazioera heltzea. | 200.000€ € | Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kontura. | Diru-laguntza mota: izenduna. |

| **LÍNEA DE SUBVENCIÓN** | **OBJETIVOS** | **EFECTOS PRETENDIDOS** | **COSTE ANUAL** | **FINANCIACIÓN** | **PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN** |
|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Ayuda para el proyecto “Enplegurako bidea” a la Asociación de | Aumentar la empleabilidad de 100 personas desempleadas de Eibar | Llegar a un 30% de contratación entre las personas que pasen de la | 200.000€ | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto. | Tipo de subvención: nominativa |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Antiguos Alumnos de Armeria Eskola | | fase de formación | | | |

Bigarrena: Diru-laguntza izendunen eranskinean derrigorrean egin behar den aldaketa egitea aurreko atalean adierazitako diru-laguntza izendunaren lerro berri hori jasotzeko:

Segundo: La necesaria modificación del anexo de subvenciones nominativas para recoger la nueva línea de subvención:

| **DIRU-LAGUNTZA LERROA.** | **URTEKO KOSTUA.** | **FUNTZIONALA** |
|---|---|---|
| HELBURUA: “Enplegurako bidea” programa egiteko laguntza. | 200.000 | 481.01 |

| **LINEA DE SUBVENCIÓN** | **COSTE ANUAL** | **FUNCIONAL** |
|---|---|---|
| OBJETO: Ayuda para la realización del programa “enplegurako bidea” | 200.000 | 481.01 |

Gaiaren premia-deklarazioa bozkatu eta aho batez onartu da.

Sometida a votación la declaración de urgencia del asunto, se aprueba por unanimidad.

Alkate jaunak adierazi du atal hau aurrekoaren ondorioa dela.

Indica el señor Alcalde que este punto es consecuencia del anterior.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre,

Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

<u>2016ko Udal Aurrekontuko Kontu sailen arteko Transferentzien Zortzigarren espedientea.</u>

<u>Octavo expediente de Transferencias del Presupuesto Municipal 2016.</u>

Kontu, Ogasun eta Ondare batzordearen irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen de la Comisión de Cuentas Hacienda y Patrimonio:

“2016. jardunaldirako Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

“Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2016, se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Udal Aurrekontuaren partiden arteko kreditu-transferentzien Zortzigarren espedientearen inguruan Alkateak egin duen proposamena, eta Gipuzkoako

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el Octavo Expediente de Transferencias de crédito del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el

Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak ezarritakoaren arabera, espediente horren inguruan Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita,

Elkar iritziak eman ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare lan batzordeko kideek proposamena bozkatu dute eta emaitza hauxe izan da: 4 boto aldeko (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola) eta 5 abstentzio (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesus Aguirre). Udalbatzari, Udal Aurrekontuko partiden arteko Transferentzien Zortzigarren espedientea ontzat har dezan eskatzen zaio.

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

Kap. Izendapena euroak

4 Transferentzia arruntak
50.000,00

Guztira gehikuntzen adina 50.000,00

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

Kap Izendapena Euroak

expediente realizado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Tras un cambio de impresiones, la comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga y Jon Iraola) y 5 abstenciones (Gorka Errasti, Igone Lamarain, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesus Aguirre), propone al Pleno Municipal la aprobación del Octavo expediente de Transferencias de Crédito del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

CapítDenominación Euros

4 Transferencias corrient.
50.000,00

Total igual a los aumentos
50.000,00

II. CREDITOS EN AUMENTO

Capít DenominaciónEuros

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2 Gastu ondasun arrunt. | 50.000,00 | 2 Compra b.corr.y serv | 50.000,00 |

Kredituen Gehikuntza guztira 50.000,00.”

Total créditos en aumento 50.000,00.”

Gaiaren presa- edo premia-deklarazioa bozkatu da eta aho batez onartu.

Sometida a votación la declaración de urgencia del asunto, se aprueba por unanimidad.

Errasti jaunak hartu du hitza. Esaten du Kultura Arloko partiden arteko aldaketa bat dela, zenbatekoa ez dela hain handia, eta ulergarria dela urtean zehar Kulturak aurrekontuan aldaketak egin behar izatea, baina berek ez dutela ulertzen 50.000 euro horietatik 10.000 euro hesiak, aulkiak eta mahaiak erosteko izatea, horiek Zerbitzu Sailak erosi eta ordaindu beharko bailituzke.

Interviene el señor Errasti quien afirma que es una modificación entre las partidas del Área de Cultura, que el importe no es importante, y que aunque entienden que a lo largo del año haya modificaciones en el presupuesto de cultura; lo que no entienden es que de los 50.000 euros aumentados, 10.000 sean para vallas mesas y sillas, que consideran deberían de ser con cargo a Servicios.

Ibañez andreak dio bat datorrela Errasti jaunak esandakoarekin; eta ez duela ulertzen zer zentzu duen hesiak, aulkiak eta mahaiak alokatzea eta Kulturari egoztea.

La señora Ibañez dice que comparte lo dicho por el señor Errasti y que no entiende qué sentido tiene el alquiler de vallas, mesas y sillas, y que se impute a Cultura.

Gaineratzen du joan zen urtean partida hori 34.000 euroan gehitu zela; aurtengoan 50.000 euro gehitu direla, eta bere Taldeak esan zuela Kontu Nagusia planteatu zenean: gastu arrunta goratzen doala, eta hauxe dela horren adibide garbi bat.

Añade que el año pasado se modificó la partida en 34.000 euros, este año se aumenta 50.000 euros, y que su Grupo ya dijo, cuanto se planteó la Cuenta General, que el gasto corriente crece y crece, y que éste es un ejemplo claro.

Amaitzeko esan du ez dagoela, ez prebisiorik, ez planifikaziorik; eta gainera,

Finaliza afirmando que no hay previsión ni planificación, que además no son

kontu hauetan ez direla hasberriak, eta bere Taldearen iritziz, hobeto planifikatu behar dela eta gastu-igoera ez egotzi aurkezten diren zuzenketei.

nuevos en estas historias, y que su Grupo considera que hay que planificar mejor y no achacar el aumento del gasto a las enmiendas que se presentan.

Alkate jaunak dio inork ez diola egotzi gastu arruntaren igoera beste inori, testuinguru baten barruan baizik.

El señor Alcalde afirma que nadie ha achacado el incremento de gasto corriente exclusivamente a nadie; sino dentro de un contexto.

Gaineratzen du atentzioa ematen diola, Ibañez andreak —kontu hauetan hasberria ez dena— kreditu-aldaketak erabiltzea beti-betikoa esateko, iraganean Ibañez andreak berak kreditu-aldaketak kudeatu izan zituenean.

Añade que le llama la atención que, no siendo efectivamente nueva en esto, la señora Ibañez utilice las modificaciones de crédito para hablar de lo mismo; cuando en un pasado ha gestionado modificaciones de crédito.

Albistegui jaunak hitza hartu du eta esaten du 50.000 euro horien banantzea argitu nahi duela: 18.815 euro Memoriaren karpa alokatzeko.
14.000 euro Zezen Plazako atea eta babeslekua aldatzeko.
3.200 euro Euskal Herriko Itzuliaren hesiak alokatzeko.
476 euro Eibar Kirol Elkartearen jairako ekipo elektrogenorako.
286 euro Eibar Kirol Elkartearen jairako WC alokatzeko.
4.948 euro San Juan jaietako agertokia alokatzeko.
Eta, azkenik, 1.533 euro Zezen Plazaren muntatzeko eta desmuntatzeko. Hau da —dio Albistegui jaunak— partida handienak Memoriaren karpa alokatzeko eta Zezen

Interviene el señor Albistegui para decir que desea aclarar el desglose de estos 50.000: 18.815 euros en alquiler de la carpa de la Memoria.
14.000 euros para cambio de puerta y burladero dela plaza de toros.
3.200 euros en alquiler de vallas para la Vuelta al País Vasco.
476 euros para grupos electrógenos de la fiesta de la Sociedad Deportiva Eibar.
286 euros para alquiler de WC para la fiesta de la Sociedad Deportiva Eibar.
4.948 euros para alquiler del escenario de las fiestas de San Juan.
Y por último 1.533 euros para montaje y desmontaje de la plaza de toros; esto es, que las partidas más importantes son para el alquiler de la carpa de la Memoria

Plazako babeslekua eta ateak aldatzeko izan dira.

y para cambiar las puertas del burladero de la Plaza de Toros.

Ibañez andreak dio Zezen Plazako babeslekuko ateen aldaketa gauza berriren bat ote den; berak prebisio eta planifikazio faltaz hitz egin duela, eta aurreikusita ez zeuden gauzen artean ikusten duen gauza bakarra Memoriaren karpa dela, Alkatetzako partidaren kargu zihoalakoan zegoelako.

Afirma la señora Ibañez que se pregunta si el cambio de puertas del burladero de la plaza de toros es algo nuevo, que ella ha hablado de falta de previsión y planificación y que lo único que ve como no previsto es la carpa de la Memoria, que pensaba que iba con cargo a la partida de Alcaldía.

Albistegui jaunak dio berak argitu nahi izan duen gauza bakarra 50.000 euro horiek zertan erabili diren zela; Eibar Kirol Elkartearen jaia ere ezin zela aurreikusi, eta Zezen Plazako babeslekuaren ate-aldaketa hori berrikuspen baten ondorioz izan dela.

Afirma el señor Albistegui que sólo pretendía aclarar a qué se han destinado estos 50.000 euros, que tampoco se podía prever la fiesta de la Sociedad Deportiva Eibar, y que en cuanto al cambio de puertas del burladero, el mismo se ha debido a una revisión.

Alkate jaunak dio gauzak aurre-ikusten hain onak izango balira ez liratekeela “presupuesto” izango “supuesto” baizik.

Dice el señor Alcalde que si fuesen tan buenos previendo no serían Presupuestos, sino Supuestos.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-

EE).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

5. ATALA

Idazkariak dio gai honen inguruko lehenengo idatzia urriaren 21ekoa dela, Irabazi Talde politikoak Podemos Ahal Dugu Eibar-ekin batera aurkeztutakoa; handik egun batzuetara, urriaren 28an, Irabazi Talde politikoak Podemos Ahal Dugu Eibar-ekin batera beste testu bat aurkeztu zuela; eta, gaur, erdibideko mozio bat aurkeztu dela, Irabazik eta Podemos Ahal Dugu Eibar-ek aurkeztutakoari egindakoa, PSE-EE, EH Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi Udal Taldeek aurkeztutakoa. Idazkariak, azkena irakurri du:

Irabazi eta Podemos-Ahal Dugu Eibarrek kontsumorako egokiak izan arren salmentarako baztertzen diren janariak edo elikagaiak aprobetxatzeari buruz aurkeztu duten mozioaren aurrean,

PUNTO 5º

Indica la Secretaria que referente a este tema hay un primer escrito registrado el 21 de octubre por el Grupo político Irabazi conjuntamente con Podemos Ahal Dugu Eibar, que posteriormente, el 28 de octubre el Grupo Irabazi conjuntamente con Podemos Ahal Dugu Eibar presenta otro texto, y que en el día de hoy se presenta una moción transaccional de los grupos municipales PSE-EE, EH Bildu, EAJ-PNV e Irabazi a la presentada por Irabazi y Podemos Ahal Dugu, a la que procede a dar lectura:

“Moción transaccional de los Grupos municipales PSE-EE, EH-Bildu, EAJ-PNV e Irabazi a la presentada por Irabazi y Podemos-Ahal Dugu Eibar, relativa al aprovechamiento de alimentos aptos para

aukerako mozioa, PSE-EE, EH-Bildu, EAJ-PNV e Irabazi taldeek aurkeztua.

"- Eibarko Udal Osoko Bilkurak honako konpromiso hau hartzen du: Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin batera lan egitea aurretik ere jorratuta dagoen elkarlan-esparru horretan, kontsumorako egokiak izan arren, salmentarako baztertzen diren elikagaiak bildu eta aprobetxatzeko xedez, supermerkatu batzuekin sinatuta dauden hitzarmenak ahalik eta supermerkatu gehienetara heda daitezen.

- Ildo beretik, Eibarko Udal Osoko Bilkurak, Eibarko ostalarien ordezkariekin biltzeko konpromisoa hartzen du, martxan jarrita dauden esperientzia batzuk aztertzeko edo, kontsumorako egokiak izan arren, salmentarako baztertzen diren elikagaiak aprobetxatzeko egon daitezkeen aukerak aztertzeko.

- Berebat, Eibarko Udal Osoko Bilkurak "Elkartasun-hozkailua edo Edukiontzi Beti Hoztua" jartzeko eta haren kostua bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du, Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearekin elkarlanean arituta.

Proiektu horrek aurrera egin dezan, gizarte-izaerako herriko elkarteren batek hartu behar du hozkailuaren funtzionamendu onaren ardura (garbiketa,

el consumo y descartados para la venta.

"- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar se compromete a, en el marco de colaboración ya existente con el Banco de Alimentos de Gipuzkoa, trabajar conjuntamente para ampliar los convenios ya firmados con algunos supermercados al mayor número de ellos para la recogida y el aprovechamiento de los alimentos aptos para el consumo, pero descartados para su venta.

- En la misma línea, el Pleno Ayuntamiento de Eibar se compromete a reunirse con los/as representantes de los hosteleros/as eibarreses/as para analizar las experiencias ya en práctica o alternativas para el aprovechamiento de aquellos alimentos aptos para el consumo y ya descartados para su venta.

- Se compromete, asimismo, a responsabilizarse de la instalación y coste de la llamada "Nevera Solidaria o Contenedor Siempre Refrigerado", en colaboración con la Asociación Humanitaria de Voluntarios de Galdakao GBGE Galdakao Boluntarioen Gizarte Elkartea.

Para el funcionamiento de este proyecto, será necesario que alguna asociación local de carácter social se responsabilice del correcto funcionamiento de la nevera

produktuen iraungitze-kontrola...).

- Aldi berean, Eibarko Udal Osoko Bilkurak elikagaien kontsumo arduratsuari buruzko heziketa-eta kontzientziazio-kanpainetan modu eraginkorrean parte hartzeko konpromisoa hartzen du.”

Aguirre andreak eskatu du aurkeztu zuten jatorrizko mozio haren arrazoien azalpena irakurtzea.

Eskatutakoa irakurri da:

“ARRAZOIEN AZALPENA:

Espainian 2015. urtean izandako Elikagaien Kontsumoari buruzko Txostenaren arabera (Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egindakoa), gure herrialdean alferrik galtzen diren janariak 7,7 miloi tonatan jotzen dira urteko. Europan zazpigarrena da Espainia janari gehien alperrik galtzen duten herrialdeen artean. FAOk —Nazio Batuen Nekazaritzarako eta Elikadurarako erakundea— emandako datuen arabera, 100 kilotik gora dira pertsonako eta urteko kontsumorako egokiak izan arren salmentarako baztertzen diren janariak.

Elikagaien Bankuko Espainiako Federazioaren prentsa-arduradunak, ANGEL FRANCO jaunak, emandako datuen arabera, Espainiako etxeetan

(limpieza, control de la caducidad de los productos,…).

- Igualmente, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar se compromete a involucrarse activamente en campañas educativas y de concienciación sobre el consumo responsable de alimentos.”

Solicita la señora Aguirre que se de lectura a la exposición de motivos de la moción que presentaron.

Se da lectura a lo solicitado:

“EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Según el Informe del Consumo de alimentación en España en 2015 (realizado por el Ministerio de Agricultura, alimentación y Medio ambiente del Gobierno español), en nuestro país el desperdicio de alimentos se cifra en 7,7 millones de toneladas anuales. Siendo España el séptimo país que más desperdicia alimentos en Europa. Según datos de la FAO (Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación) el desperdicio de alimentos aptos para el consumo y descartados para la venta supera los 100 kgs. por persona al año.

En virtud de los datos aportados por el responsable de prensa de la Federación Española de Banco de Alimentos (FESBAL), Sr. ANGEL FRANCO, los

urtero 1,36 milioi tona botatzen dira; beraz, alferrik galtzen diren elikagai guztietatik % 40 inguru Espainiako etxeetan dute jatorria, % 39 industria-arloan, % 5 merkataritzakoan eta % 14 jatetxe-arloan.

hogares españoles desperdician anualmente 1,36 millones de toneladas, lo que supone en un torno al 40% del total de productos alimenticios que se desperdician proceden de los hogares españoles, correspondiendo un 39% a la industria, un 5% al comercio y un 14% del mundo de la restauración.

Datu horiek ez datoz bat honako datu honekin: Euskadin, 2015. urtean, INE-ren arabera, HERRITARREN % 17,5 DAGO POBREZIA ARRISKUAN. POBREZIA-INDIZEA BIZTANLERIAREN % 4TIK GORAKOA DA. % 10 inguru dira hile amaierara heltzeko zailtasun handiak dauzkaten euskal etxeak. Neurri handi batean edo txikiagoan, gure geografiako herri guztiak ez daude errealitate horretatik aparte, Eibarko gure hiri ospetsu hau barne.

Estos datos contrastan con el hecho de que en Euskadi en el 2015, según fuente del INE, EL 17,5% DE LA POBLACIÓN VASCA ESTÁ EN RIESGO DE POBREZA. EL ÍNDICE DE POBREZA SUPERA EL 4% DE LA POBLACIÓN. Estipulándose en torno al 10% de hogares vascos los que atraviesan serias dificultades para llegar a fin de mes. Realidad a la que no es ajena, en mayor o menos medida, cada población de nuestra geografía, incluida nuestra ilustre ciudad de Eibar.

Europako Parlamentuaren 2012ko urtarrilaren 19ko Ebazpenean azaltzen den bezala, Europan, estimazio batzuen arabera, nekazaritza-elikadurako katearen maila guztietan, kontsumitzailearengana iritsi arte, elikagai sano eta jangarritan, urtero, % 50eraino galtzen da. Elikagai edo janari horiek, alferrik galtzean, hondakin bilakatzen dira.

Tal y como figura en la Resolución del Parlamento Europeo de 19 de Enero de 2012, cada año se pierden en Europa, según algunas estimaciones, hasta el 50 % de alimentos sanos y comestibles a lo largo de todos los eslabones de la cadena agroalimentaria, hasta el consumidor. Alimentos que, al desperdiciarse, se convierten en residuos.

Aurrez azaldutakoagatik hauxe esan daiteke: janarien edo elikagaien galbide hori, gizarte-egoera zailak leuntzeko erabil litezkeen baliabideak galtzeaz gain, materia organikoko hondakin erako ingurumen-karga bat dela, Administrazio

Por lo anteriormente expuesto, se puede afirmar que este desperdicio de alimentos, además de suponer una pérdida de recursos que podrían utilizarse para paliar situaciones sociales difíciles, constituye una carga medioambiental en forma de

Publikoek kudeatu behar dutena. Elikagaiok aprobetxatzea neurri garrantzizkoa da hondakin-kudeaketaren egitekoetan dauden hiru hitz horietako aurrena hobetzeko orduan: MURRIZTEA. (Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea).

residuos de materia orgánica que tienen que ser gestionada por las Administraciones Públicas. Su aprovechamiento supone una importante medida en el objetivo de mejorar la primera de las tres erres de gestión de residuos, la “R” DE SU REDUCCIÓN. (Reducir, Reutilizar y Reciclar).

Egoera horrek bide ematen du botere publikoek neurriak har ditzaten, hiritarrengan kontsumo-ohitura arrazoizkoak sustatzera zuzendutako neurriak; baina ez hori bakarrik: baita ekoizpenean eta elikagaien banaketa-kateetan janariak ALFERRIK EZ GALTZEKO moduak sustatzera zuzendutako neurriak ere.

Esta situación justifica que desde los poderes públicos se adopten medidas dirigidas a promover no solo hábitos de consumo razonable en los ciudadanos, sino también prácticas en la producción y en las cadenas de distribución de alimentos que eviten su DESPERDICIO.

Ildo horretatik, uztailaren 28ko 22/2001 Legeak, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, hondakinei aurrea hartzeko programak arautzen dituenez, hartzen dituen neurrien artean berariaz jasotzen ditu elikagaiak alferrik ez galtzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko neurriak, esate baterako, hauek: dendekin akordioetara heltzea iraungita dauden elikagaiak ahalik eta gutxien izan daitezen; kontsumitzaileentzako, jatetxe-arloarentzako eta jangelak dituzten jarduerentzako jarraibideak ezartzea sobran geratzen diren janariak aprobetxatzeko; egoera onean dauden janari-eszedenteak aprobetxatzeko moduan sortzea gizarte-ekimenen bitartez (herri-jangelak, elikagaien bankuak eta

En tal sentido, la Ley 22/2011 de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, al regular los programas de prevención de residuos, incluye de forma expresa entre sus medidas, inclusión de medidas encaminadas a evitar el desperdicio de alimentos y fomentar el consumo responsable, tales como acuerdos con los comercios para minimizar los alimentos caducados, establecer pautas para consumidores, restauración y actividades con comedor para aprovechar los alimentos sobrantes, crear vías de aprovechamiento de excedentes en buen estado a través de iniciativas sociales – comedores populares, bancos de alimentos, etc. Ver ANEXO IV (Ejemplos de medidas de prevención de residuos

abar). Ikusi Legearen IV. ERANSKINA (Hondakinen prebentzio-neurrien adibideak, 15. artikuluaren 19. atalean islatutakoak).”

contempladas en el artículo 15) Apartado 19.”

Aguirre andreak hartu du hitza. Esaten du erdibidekoarekin bat egin duela programa aurrera ateratzeko interes handia duelako, baina erdibideko horretan hauxe falta dela: azalera handiek produktuak iraungi baino bizpahiru egun lehenago zaborretara botatzen dituzten produktuen eta elikagaien bankuaren arteko hori, eta, horretarako, produktu horiek biltzeko edo gordetzeko Udalak leku bat eduki beharko lukeela.

Interviene la señora Aguire quien afirma que se ha sumado a la transaccional pues le interesa mucho que el programa vaya adelante, pero que falta en la transaccional la etapa que va entre el banco de alimentos y cuando las grandes superficies echan a la basura los productos dos o tres días antes de caducar, y que, para ello el Ayuntamiento debería de disponer de un lugar de almacenamiento para estos productos.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du jatorrizko mozioak beraiek harrituta utzi dituen gauza batzuk zekartzala; baina, hala ere, mozioak eskatzen duenarekin ados daudela: supermerkatuei eta ostalariei elikagai guztiak aprobetxa ditzaten eskatzea. Eta, aldi berean, eskertu egin behar zaiela sobran duten jatekoa ematen dutenei, eta elkarteren bat prest badago izozkailuak kudeatzera, beren aldetik baietza emango luketela azpiegitura hori jartzeko asmoari.
Gaineratzen du Irabazi taldeari ere eskertzen diotela mozio bateratu bat izateko erakutsi duen eskuzabaltasunagatik, eta udal talde guztiek babestea nahi dutela.

Interviene a continuación el señor Mendicute para decir que la moción original decía algunas cosas que les asombraba, pero que de todas formas son conformes con lo que se plantea de solicitar a los supermercados y a la hostelería que se utilicen los alimentos; a la par que agradecer a los que ya dan la comida que sobra, y que si alguna asociación está dispuesta a gestionar los frigoríficos, por su parte apoyarán la instalación de esta infraestructura.
Añade que también agradecen a Irabazi la generosidad que ha tenido en buscar una moción compartida, y que desean que la apoyen todos los grupos municipales.

Ondoren Lamarain andreak hartu du hitza. Hasteko esan du mozioekin aurrera eta atzera dabiltzala, eta gaur goizean berek ez zekitela Irabazik eta Podemosek beste testu bat aurkeztu dutenik, beraz, mozioen kontu hau nahiko gorabeheratsua dela eta ez dakitela egunen batean konponduko den. Hala ere, dio Lamaraian andreak, hasieran testu bi izan arren, azkenean, irakurri den mozioaren edukiarekin denak ados egotea dela kontua.

Gaineratzen du Eibarren elikagaien bankuak egiten duen lana aitortzeaz gain, bere iritziz erdibideko mozioa hobea dela, elikagaien bankuarekin lanean zuzenean aritzea proposatzen duelako.

Geroxeago dio interesgarria iruditzen zaiola Aguirre andreak planteatu duena, baina bere ustez hori ondo aztertu beharra dagoela, elikagaien kalitatea, osasun kontuak eta higieneari dagozkionak ere ondo aztertu behar direlako.

Amaitzeko, Lamarain andreak esan du ostalariekin batera jardun behar dela lanean, baina ostalari batzuk, planifikatzeke, urte mordoa daramatela egunaren amaieran hurrengo egunerako gorde ezin diren janariak banatzen.

Ondoren Alkate jaunak hartu du hitza.

Interviene a continuación la señora Lamarain quien comienza diciendo que se está para atrás y delante con las mociones y que así esta mañana no sabían que Irabazi y Podemos hubieran presentado otro texto, con lo cual, este tema de las mociones es bastante lioso, y no saben si algún día se arreglará; pero que lo importante es que aunque al principio hubiera dos textos, al final con el contenido de la leída todos estén de acuerdo.

Añade que cree que, aparte de reconocer el trabajo que hace el banco de alimentos en Eibar, la moción transaccional es mejor porque propone trabajar directamente con el banco de alimentos.

Dice más adelante que le parece interesante lo planteado por la señora Aguirre, pero que cree que hay que estudiarlo detenidamente, pues hay aspectos de higiene, calidad de los alimentos y de salud.

Finaliza afirmando que hay que trabajar con los hosteleros; pero que la verdad es que los hosteleros hace años, aunque sin planificación, vienen dando los alimentos que no han podido aprovechar el día anterior.

Interviene a continuación el señor

Esaten du mozioak elikagai-kontsumo arduratsua eta jasangarriagoa bilatu nahi duela, baina ingurunearen errealitatea ere kontuan hartu behar dela, eta Irabazik eta Podemosek aurkeztutako mozioari dagoeneko eginda dagoen lanaren eta eskura dauden erraminten aitorpena falta zitzaiola.

Gaineratzen du Alkateak zaila dela ostalariarekin jarduketa-protokolo bat ezartzea, baina, agian, honek balio dezakeela ostalarien artean honetaz hitz egin eta ostalari gehiagok parte hartzeko.

Aguirre andreak esandakoaren gainean, dio Alkateak, baloratu egin beharko da, baina Elikagaien Bankuak jasotzen ez duena Udalak jasotzea ez duela zentzuzkoa ematen, eta berak, Udal gisa, sekula ez lukeela banatuko iraungitako produktu bat, nahiz eta produktu kadukatuak jan daitezkeen, baina norberaren erantzukizunez, ez Udalaren erantzukizunez.

Geroxeago dio izozkailu solidarioa eskatu zela eta ez zela bidezkoa ikusi hemen, Eibarren, jartzea; eta orain berriro eskatu da; baina horrek ez du aldarazten Udalaren iritzia, hau da: Udalak behar diren izozkailu guztiak jartzeko konpromisoa hartzen du, baina kolektiboren batek kudeatu beharko ditu; kolektiboren bat arduratu beharko da mantentze-lanaz, eta zerbait gertatuz gero, letozkeen kalteez.

Alcalde y afirma que lo que busca la moción es ir hacia un consumo de alimentos más responsable y más sostenible, pero que hay que tener en cuenta la realidad del entorno, y que a la moción que presentaba Irabazi y Podemos le faltaba el reconocimiento al trabajo ya realizado y a las herramientas de las que ya se disponen.

Añade que es difícil establecer con los hosteleros un protocolo de actuación, pero que quizá pueda servir para que se comente entre ellos el tema, y haya más participación.

Sobre lo comentado por la señora Aguirre, prosigue, habrá que valorarlo pero aquello que no recoge el Banco de alimentos, no encaja que el Ayuntamiento lo haga, y que él como Ayuntamiento, nunca distribuiría un producto caducado, aunque luego puedan comerse productos caducados, pero como responsabilidad personal, y no del Ayuntamiento.

Dice más adelante que la nevera solidaria se puso una vez sobre la mesa y que no se entendió oportuno instalarla en la ciudad, y que ahora se plantea de nuevo; y que no varía la posición del Ayuntamiento. Esto es, que el Ayuntamiento se comprometerá a que se coloquen todas las neveras que sean necesarias, pero que tendrá que gestionarlas algún colectivo y responsabilizarse del mantenimiento y

de los perjuicios, si algo ocurriera.

Aguirre andreak dio denbora-tarte bat egoten dela Elikagaien Bankura bidali eta jatekoak banatu eta baztertu arte, ikusten delako jendea supermerkatuetako edukiontzietatik jatekoak ateratzen, eta horrelakorik ez gertatzeko egin duela egin duen eskaera.

Afirma la señora Aguirre que hay un tiempo intermedio entre el envío al Banco de Alimentos y la distribución y el desecho de los alimentos; ya que se puede ver a gente sacando alimentos de los contenedores de los supermercados, y que para evitar esto, es por lo que ha hecho el planteamiento.

Gaineratzen du bera ere ados dagoela horretan: ezin dela janari edo elikagai kadukaturik entregatu, baina supermerkatuek, kadukatu baino bizpahiru egun lehenago, zaborrontzira botatzen dituztela, eta berek jateko horiek aprobetxatzeko formula bat bilatzea nahiko luketela.

Añade que ella también está de acuerdo en que no se pueden entregar alimentos caducados, pero que los supermercados dos o tres días antes de caducar los lanzan a la basura y que les gustaría que se buscase una fórmula para aprovecharlos.

Erdibideko mozioa bozkatu eta aho batez onartu da.

Sometida a votación la moción transaccional, se aprueba por unanimidad.

6. ATALA.

Eibarko PSE-EE taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa Eibarko EAJ-PNV taldeak baserrietarako bide-sareak hobetzeko aurkeztu duen mozioaren aurrean.

PUNTO 6º

Moción alternativa del PSE-EE a la presentada por Eibarko EAJ-PNV relativa a la mejora de la red viaria a los barrios rurales.

Idazkariak dio EAJ-PNVk Udal Taldeak urriaren 21ean aurkeztutako testu bat dagoela; eta, gaurko egunez, PSE-EE

Indica la Secretaria que hay un texto presentado por el Grupo PNV el 21 de octubre, y que posteriormente, se ha

Taldeak mozio alternatibo bat aurkeztu duela.

presentado una moción alternativa del PSE-EE en el día de hoy.

EAJ-PNVek aurkeztu duen testua irakurri du:

Da lectura al texto presentado por el PNV:

<u>EAJ-PNV Taldeak aurkeztu duen mozioa baserri-auzoetarako bide-sarea hobetzeari buruz.</u>

<u>Moción presentada por el Grupo EAJ-PNV relativa a la mejora de la red viaria a los barrios rurales.</u>

“Egindako inbertsioak eginda ere, gaur egun Eibarko udal mugarteko baserrietara sarbide ematen duten erabilera publikoko lurreko garraiorako bideetako asko ez daude zolatuta, edo ez dituzte automobilak ibiltzeko beharrezko baldintzak eta ezaugarriak betetzen. Bide hauen egoerak arriskua dakar erabiltzen dituzten pertsonentzat, are gehiago neguan, labanak baitira eta istripu-arriskua altua baita. Bide horiek beharrezkoak dira hiriko hainbat baserritara iristeko. Landa-ingurunea sektore estrategikotzat hartu beharra dago, eta Udal honen ardura da sarbide ona bermatzea Aginagako, Arrateko, Gorostako, Kinarra-Otaolako eta Mandiolako herritarrei.

“Pese a las inversiones realizadas, a día de hoy muchas de las vías de comunicación terrestre destinadas al uso público de acceso a caseríos del término municipal de Eibar no se encuentran pavimentadas o no reunen los requisitos y características técnicas normales de las destinadas para la circularon de vehículos automóviles. El estado de varias de estas pistas supone un peligro para las personas usuarias de dichos caminos, peligro que se agrava en la temporada invernal, ya que patinan y el riesgo de accidente es elevado. Estas vías son necesarias para el acceso a los diferentes caseríos de la ciudad. El medio rural debe ser considerado como sector estratégico y es labor de éste Ayuntamiento facilitar un buen acceso a las y los vecinos de Aginaga, Arrate, Gorosta, Kinarra-Otaola y Mandiola.

Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak ondorengo mozio hau aurkezten du.

Por todo ello, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente moción.

Eibarko Udal Batzarrak lehentasunezkotzat hartzen du udal mugartearen barruan dauden baserrietara ibilgailu bidez iristeko aukera bermatzea. Hori dela eta, Udal Gobernuari eskatzen dio baserri-auzoetarako bideak konpontzeko plan bat aurkez dezala. Plan horrek areagotu egingo ditu baserri-auzoetarako bideak asfaltatzeko lanak, eta epe-muga jarriko dio hormigonatzeke dauden bideak edo hormigoia hondatuta daukatenak konpontzeko, eta, horren ondoren, asfaltatzeko. Halaber, Udal Batzarrak Udal Gobernu Batzordeari eskatzen dio 2017ko aurrekontu-zirriborroan jaso dezala Plan hori gauzatzeko aurrekontu-saila, 2016an zeregin horietara bideratutako kantitatea handituz. Aurreko guztia gauzatzeko, elkarlanean jardun dezala "Andirao" Eibarko Baserritarren Elkartearekin."

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar considera prioritario garantizar el tráfico rodado a los caseríos ubicados dentro del término municipal, por lo que insta al Gobierno Municipal a presentar un plan para arreglar las pistas de acceso a barrios rurales. Dicho Plan intensificará los trabajos de asfaltado de los mencionadas pistas, y establecerá un plazo para arreglar y posteriormente asfaltar las pistas que a día de hoy siguen sin hormigonarse o se encuentran con hormigonado deteriorado. Asimismo, el Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta a la Junta de Gobierno local a incorporar en el borrador del presupuesto municipal de 2017 una partida presupuestaria para el desarrollo del mencionado Plan, aumentando la cantidad presupuestada en 2016 para estas tareas. Que, para desarrollar todo lo anterior, trabaje en colaboración con "Andirao" Eibarko Baserritarren Elkartea."

Ondoren, mozio alternatiboa edo aukerakoa irakurri da:

A continuación se da lectura a la Moción alternativa:

<u>Eibarko PSE-EE taldeak mozio alternatiboa Eibarko EAJ-PNV taldeak baserrietarako bide-sareak hobetzeko aurkeztu duen mozioari.</u>

<u>Moción alternativa del PSE-EE a la presentada por Eibarko EAJ-PNV relativa a la mejora de la red viaria a los barrios rurales.</u>

"Eibarko Udalbatzarrak Udal Gobernuari hauxe eskatzen dio: "Andirao" Eibarko Baserritarren Elkartearekin lehendik

"El Pleno del Ayuntamiento de Eibar insta al Gobierno Municipal a que, en base a la relación colaborativa ya existente con

ezarrita dagoen elkarlanaren ildo horretan, Udalak mapa bat egin dezala baserri-ingurunean dauden bide-azpiegitura guztiak gaur egun duten egoera jasota, eta, hala bada kasua, hobetzeko premiak ere islatuta.

“Andirao” Eibarko Baserritarren Elkartea, elabore un mapa de las infraestructuras viarias existentes en el entorno rural con su situación actual y, en su caso, necesidades de mejora.

Mapa hori egin eta hortik ateratzen diren ondorioak hezurmamitzeko, urtero, plangintza bat egingo da; horretarako, udal aurrekontuak tramitatu, negoziatu eta onartuta. Udal Aurrekontuan jasoko da mapa horretatik sortutako egitekoak betetzen joateko behar den aurrekontua.”

El desarrollo y ejecución derivados de ese mapa se planificarán anualmente, mediante la tramitación, negociación y aprobación de los presupuestos municipales, donde se recogerá la disponibilidad presupuestaria para ir cumpliendo los objetivos derivados de ese mapa.”

Mendicute jaunak hartu du hitza eta esaten du baserrietarako kaminoak edo bideak orain dela hogeita hamar urte hormigonatu zirela; eta, bide gehienetan, hormigoia apurtuta dagoela, bideok ez direlako asfaltatu, eta batek baino gehiagok hartu duela sustu ederra bideotan dauden zuloei izkin egin nahian.

Esan du zenbat eta gehiago tardatu konpontzen orduan eta garestiago aterako dela konponketa, eta, akaso, Euskal Herriko 57. Itzulia ekartzea pentsatuta dagoenez, horri esker konponduko direla baserri-bide edo kamino guztiak.

Interviene el señor Mendicute quien afirma que los caminos rurales se hormigonaron hace treinta años, y que en la mayoría de ellos el hormigón está roto porque no se han asfaltado, con lo que más de uno ha sufrido un susto esquivando los agujeros existentes.

Prosigue diciendo que cuanto más se tarden en arreglar, más costoso será el arreglo, y que igual, ahora que se plantea la Vuelta Ciclista al País Vasco número 57, se logra que se arreglen todos los caminos.

Mendicute jaunak azaldu du urtero 125.000 euroko partida bat jartzen dela, baina hortik ateratzen dela erregistro-kutxatilak eta

Continúa explicando que cada año se plantea una partida de 125.000 euros, pero que de esa partida se saca dinero

arekak konpontzeko eta ur-depositoak jartzeko zenbatekoa, hiru baserri daudelako ur-deposito faltan; baina hori guztia egiten bada ez dela dirurik geratuko pistak konpontzeko.

Gaineratzen du ez dela ahaztu behar baserritarrak auzolanean egiten dituztela lanak, ur-depositoak mantendu eta garbitu berek egiten dituztelako; eta Agiñagan ere, ur-hodiak apurtu zirenean, baserritarrek konpondu zituzten; Udalak materialak baino ez zituen ipini. Beraz, oso merke ateratzen zaio sektore hori Udalari: baserritarrek ez dute eskatzen farolarik, kale-garbitzailerik edo zabor-bilketarik; gainera, kexatu egiten dira kalean obrak egiten eta berregiten ibiltzeagatik. Esate baterako, Errebalean, orain dela zazpi urte jarri ziren hodiak kendu, eta, orain, berriro ipintzen gastatu diren 150.000 euro horiekin beharrezkoa den guzti hau eta askoz gehiago egiteko ematen zuten.

para el arreglo de las arquetas, cunetas, y también depósitos de agua, porque están tres caseríos a falta de estos depósitos; y si se hace todo esto, no quedará para arreglar las pistas.

Añade que no hay que olvidar la colaboración que realizan los baserritarras en *auzolan*, pues mantienen y limpian los depósitos de agua, y también cuando en Aginaga se rompieron las tuberías, las arreglaron y el Ayuntamiento sólo puso los materiales; por lo que éste es un sector que al Ayuntamiento le resulta barato, y que así, los baserritarras no piden iluminación, barrenderos, o recogida de basuras, y que se quejan de que en las vías urbanas se hagan y rehagan obras. Y así por ejemplo, los 150.000 euros que se han empleado en rehacer las tuberías de Errebal, que se hicieron hace siete años, daban para hacer bastante de todo esto que es necesario.

Mendicute jaunak dio geroxeago 2016an Zezeilerako bidearen hirugarren zatia egitea dagoela pentsatuta, hiru baserrirakoa, baina Eibarren ehun eta bat baserri badaude, zenbat urte behar ote dira baserri guztietako bideak egiteko.

Afirma más adelante que el 2016 se plantea hacer el tercer tramo de Zezeilko, que afecta a tres caseríos; pero que si en Eibar hay ciento un caseríos, se pregunta cuántos años se precisan para hacer los caminos de todos los caseríos.

Horregatik guztiagatik, dio, premiak jasoko lituzkeen plan bat egitea planteatzen du, premiak eta arazoak asko direlako nekazaritza-ingurunean, eta ez bakarrik baserrietako bideak, baita baserritarrek

Por todo esto, prosigue, plantean realizar un plan que recoja las necesidades, pues necesidades y problemas hay muchos, y no sólo los caminos rurales, como las fosas sépticas

egiten dituzten putzu septikoak ere, gero hustu behar izaten direnak, berek ordainduta; edo Europar Batasunak ezarritako epe horietan egin behar den ur-beltzen kanalizazioa.

Mendicute jaunak dio geroxeago partida hau, gainera, krisiarekin murriztu egin da, lehen 180.000 eurokoa zelako eta gaur egun 125.000ekoa. Hala ere, dio, egia da beste 60.000 euro gehiago daudela ispilkuak eta gauza txikiak konpontzeko, elur-kentzeko makinarentzako eta Debemenen kuota ordaintzeko; entitate horrek —dio— Udalari 46.000 euroko laguntza ematen dio inbertsioetarako, beraz, Udalak egiten duen diru-ekarpena jaitsi egiten da.

Mendicute jaunak dio Udalaren finantza-eta ekonomia-egoera zelakoa den ikusita, zergatik ez diren mantentzen 180.000 euro horiek; edo zergatik ez den bereizten kutxatilak eta arekak konpontzeko zenbateko hori kamino- edo bide-konponketara zuzendutato zenbatekotik.

PSE-EEren mozio alternatiboari dagokionez, dio Mendicute jaunak, ikusten da alderdi horrek ez duela nahi aurrekontuaren gaian sartzerik, eta hori uler daiteke, mapa bat egitea jasotzen baitu, baserri-ingurunean dauden bide-azpiegitura guztiak gaur egun duten egoera jasota, eta, “hala bada kasua”, hobetzeko premiak jasota, hobetze-premiarik dagoen zalantzan jartzen bezala. Horrek, gogaitarazi egiten ditu, mindu.

que hacen los caseros, y que se vacían, pero pagando los baserritarras, o la canalización de aguas fecales en los plazos establecidos por la Unión Europea.

Dice más adelante que además esta partida se ha reducido por el tema de la crisis, pues antes era de 180.000 euros y ahora es de 125.000 euro; si bien hay otros 60.000 euros más para arreglar los espejos, pequeñas reparaciones, quitanieves, y abono de la cuota de Debemen, entidad que da una ayuda al Ayuntamiento de 46.000 euros para inversiones, con lo que baja la aportación municipal.

Se pregunta, continúa, vista la situación económico- financiera del Ayuntamiento, porqué no se mantienen los 180.000 euros, o no se separa la cantidad destinada a reparación de arquetas y cunetas de la destinada a arreglo de caminos.

En cuanto a la moción alternativa del PSE-EE, finaliza, se ve que no desea meterse en el tema presupuestario, lo cual se puede entender, pues recoge que se elabore el mapa de infraestructuras viarias existente en el entorno rural con su situación actual y “en su caso” necesidades de mejoras, como poniendo en duda que haya necesidades de mejora, lo cual, indica, a ellos les molesta.

Alkate jaunak dio dio “hala bada kasua” jasotzen denean hauxe esan nahi duela: hobetu beharra duten bideak jasotzea, beste batzuetan ez baita ezer egiteko premiarik izango; ezta orain dela urte gutxi konpondu diren beste batzuetan ere.

Interviene el señor Alcalde quien afirma que cuando se recoge “en su caso”, quiere decir lo siguiente: en aquellas en las que haya necesidad de mejoras. Pues habrá algunas en las que sí, pero también en otras que se han hecho hace pocos años, en las que no habrá que hacer mejoras.

Segitu du esaten mozioaren arrazoia zein den jakin arren, dialektikagatik, mozioa ez duela oso ondo ulertzen esan beharra duela.

Prosigue afirmando, que aunque sabe el motivo de la moción, por dialéctica tiene que decir que no entiende bien la moción.

Lehendabizi —gaineratzen du Alkateak— gauzak nahasten direlako: bide-azpiegituren mapa bat egitea eskatzen da Andiraorekin elkarlanean arituta; eta Andirao sortu zenetik ari da Udal hau elkarlanean elkarte horrekin, zehazkiago esanda: baserritarrek urte bakoitzean dituzten premiak zeintzuk diren azaltzen dute, eta horrekin partida bat ezartzen da, eta gauzak egiten dira dirua heltzen deneraino.

Primero, añade, porque se mezclan cosas, pues se plantea elaborar un mapa de infraestructuras viarias en colaboración con Andirao, cuando este Ayuntamiento viene colaborando con Andirao desde su creación, y concretamente el planteamiento que se hace es que los baserritarras planteen las necesidades que tienen cada año y con ello, se establece una partida y se ejecuta hasta donde llegue el dinero.

Segitu du esaten EAJ-PNV aurrekontuei zuzenketa bat egiten ahalegintzen ari dela mozio bidez, eta Alkateak dio, bere ustez, hori ez dela bidea, hau baizik: alde batetik, baserrietako bide-azpiegituren egoera nolakoa den ezagutu; eta, bestetik, aurrekontu-erabilgarritasuna behin lortuta, hobekuntzak egiten joan.

Prosigue afirmando que el PNV está intentando una enmienda a los presupuestos mediante mociones y que considera que éste no es el camino; sino que el camino debe de ser por una parte, conocer la situación de las infraestructuras viarias en el mundo rural, y por otra, conseguida la disponibilidad presupuestaria, ir acometiendo mejoras.

Alkateak gaineratzen du ezin dela ibili aurrekontu-konpromisoak dituzten mozioak

No se puede, añade, ir aprobando mociones donde se adquieran

onartzen. Norbaitek uste badu aurrekontuan honetarako jasotakoa eta beste premia batzuetarako jarritakoa ez dela nahikoa, aurrekontuak zuzen ditzala eskatu du Alkateak.

Amaitzeko baieztatu du bere Taldearen proposamena hauxe dela: alde batetik bide-azpiegituren egoera aztertzea, eta, hortik aurrera, aurrekontu-negoziaziora jotzea.

compromisos presupuestarios, y solicita que si alguien considera que lo recogido en los presupuestos para esto y para otras necesidades no es suficiente; enmiende los presupuestos.

Concluye afirmando que la propuesta de su Grupo es por una parte, analizar la situación de las infraestructuras viarias, y a partir de ahí, que se dé la negociación presupuestaria.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Hasteko esan du “hala bada kasua” adierazpidea berak lehen azaldu duen moduan ulertu duela.

Segitu du esaten berek ez dutela ukatzen Andiraorekin elkarlana badenik, eta ondo irizten zaiela lehentasunak Andiraorekin finkatzea. Proposatzen ari diren gauza bakarra hauxe dela: egiten den plan hori Andiraorekin elkarlanean egin dadila.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien comienza diciendo que en verdad la expresión “en su caso” la ha entendido como ha explicado.

Prosigue afirmando que no niegan que ya exista colaboración con Andirao, y que les parece bien que se marquen las prioridades con Andirao y que únicamente lo que están proponiendo es que el plan que se haga sea en colaboración con Andirao.

Mozio batek —dio Mendicute jaunak— kutsu politikoa izaten du, baina sekula ez du eskatzen gero aurrekontu-partida bat jartzeko konpromisoa, eta mozio hau planteatu badute izan da baserri-bideen asfaltatzeak duen erritmoagatik, izan ere —inbertsioak egiten ari direla ukatzeke— partidak beste premia batzuk ere jasotzen baititu, ezustean edo gertatzen diren gauzei aurre egiteko; eta, sarri askotan, premiak sortzen direnean, egiten dena ez da kreditu-aldaketa bat, egitekotan zeuden gauza batzuk hurrengo urterako lagatzea baizik. Horrela, erritmo horretan, hamarkadak

Una moción, continúa, tiene carácter político pero en ningún caso compromete la existencia de una partida presupuestaria posterior, y si se plantea esta moción, es ante el ritmo de asfaltado de los caminos rurales, ya que -sin negar que ya se están haciendo inversiones-, lo cierto es que la partida recoge también otras necesidades, que son también supuestos que van surgiendo; y que a menudo, lo que se hace cuando surgen necesidades, no es una modificación de créditos; sino aplazar la ejecución de algunas

behar izango dira baserri-bideak asfaltatzeko.

previsiones para el año siguiente. Con lo que a ese ritmo, van a hacer falta décadas para asfaltar los caminos.

Amaitzeko esan du plan hau egiten bada benetako datuak eskuratuko direla zuzenketa kuantifikatu bat egin ahal izateko, politikoki negoziatuko den zuzenketa.

Concluye afirmando que si se hace este plan se dispondrá de datos fehacientes para poder hacer una enmienda cuantificada que se negocie políticamente.

Alkate jaunak dio Mendicute jauna arrazoia ematen ari ziola berari, berak esan duena esaten ari baita: mapa bat egin, eta gero, aurrekontuen bidez, partida ezarri. Baina mozioak argi eta garbi dio: diru gehaigo jarri behar da datozen urteko aurrekontuetan, 2016an jasotakoa baino diru gehiago ipini behar da. Ostera, berarentzat, helburua bide-egoeraren mapa bat egitea da, eta ikusi zeintzuk diren konpondu behar diren kaminoak edo baserri-bideak, eta horren kostua ere ezagutu, horrela, urtero, dagoen Gobernu-taldeari iriztenzaion zuzkidura ezartzeko.

Afirma el señor Alcalde que el señor Mendicute le está dando la razón, pues está diciendo lo que él ha dicho: hacer un mapa y posteriormente, a través de los presupuestos, ordenar la partida; pero que la moción dice claramente que hay que recoger más dinero en los presupuestos del año que viene, más que en los del 2016, y que para él el objetivo es hacer un mapa de la situación viaria y ver qué caminos hay que arreglar, así como conocer su coste para establecer anualmente la dotación que considere el Equipo de gobierno.

Mendicute jaunak dio ados daudela Alkate jaunak esandakoarekin: Gobernu-taldeak, maparen arabera, aurrekontu-proposamenean deritzon zenbatekoa ezarriko duela, eta horixe dela mozioan eskatzen dena: plana garatzeko zenbateko bat jartzea.

Indica el señor Mendicute que están de acuerdo con lo dicho por el señor Alcalde de que el Equipo de gobierno, en función del mapa, establecerá la cantidad que considere en la propuesta de presupuesto, y que es lo que se solicita en la moción, que permita una cantidad para el desarrollo del plan.

Alkate jaunak dio aztiak izango liratekeela aurrekontu-proposamena egiteko plana dagoeneko egina edukiko balute.

Afirma el señor Alcalde que serían magos si para hacer la propuesta del presupuesto se dispondría ya del plan.

Ondoren Abanzabalegi andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldea ados dagoela Andiraok egindako eskaerekin eta baita mozio biek dakartenarekin; baina, azkenean nazkatuta daudela, ez dutelako bidezkoa ikusten hemen mozioak aurkeztea mozio horiek dakartzaten ondorio guztiak gauzatzeko; azken finean, kudeaketa-kontuak Gobernu-taldeari baitagozkio, hori baita hori egiteko eskumena duena, eta Udal Taldeek proposamenak egiteko aukera eduki arren, ez dute erabakitzeko eskumenik. Gainera, Taldeek badute baita aurrekontuari zuzenketak egiteko aukera.

Interviene a continuación la señora Abanzabalegui quien afirma que su Grupo está conforme con las solicitudes de Andirao, asi como con lo que plantean las dos mociones, pero que al final están aburridos porque no consideran procedente el plantear aquí mociones para ejecutar todo lo que entrañan, pues en definitiva los asuntos de gestión corresponden al Equipo de gobierno que es el competente para ello y que aunque los Grupos nunicipales pueden hacer propuestas, no tienen la competencia para decidir; teniendo también la posibilidad por parte de los Grupos el presentar enmiendas al presupuesto.

Abanzabalegi andreak gaineratzen du mozioak eta mozioak ari direla aurkezten, azken batean, Udal barruan dauden erramintak erabiltzeko.

Andirao izan balitz mozioa aurkeztu duena, dio, berek ez zuten inongo zalantzarik izango mozio horren alde egiteko; baina, Udal Talde batek, bere burua erakustearren, Elkarte bati dagokion mozioa aurkeztea ez zaiela zuzena iruditzen; eurak aspertuta daudela jokabide horrekin.

Abanzabalegi andreak gaineratzen du bere Taldea abstenitu egingo dela mozio bietan,

Añade que se están presentando mociones y mociones para, en definitiva, utilizar las herramientas de que se disponen dentro del ayuntamiento.

Su hubiera sido Andirao, prosigue, la que hubiera presentado la moción, no habrían tenido ninguna duda en apoyarla, pero el que un Grupo presente una moción que corresponde a una Asociación para hacerse visible no les parece correcto y están aburridos de ese actuar.

Añade que por todo lo dicho su Grupo se va a abstener en las dos mociones

nahiz eta bietako muinarekin ados egon.

aunque estén de acuerdo en lo fundamental de las dos.

Alkate jaunak dio bera prest dagoela hau dena aztertzera, mozioak nola tratatu behar diren aztertzera, baina horren inguruko bilera bat egin zela eta ez zutela lortu ados jartzerik.

Afirma el señor Alcalde que él está dispuesto a analizar todo esto de cómo tratar las mociones pero que ya hubo una reunión al respecto y no lograron ponerse de acuerdo.

Mendicute jaunak dio harrituta geratu dela Bildu abstenitu egingo dela jakitean, aldeko botoa emango zutelakoan zegoelako. Hala ere, dio, mozioa beste erreminta bat gehiago da Udalaren kudeaketa-politikorako eta erabakiak hartzeko.

Bilduk duen eragozpenik handiena bada mozioak aurrekonturako gauzak planteatzen dituela, Mendicute jaunak dio eurek Bilduri eskaini diotela mozio hau adostea, eta atal hori inongo arazorik gabe ken zitekeela.
Gaineratzen du harritu eta deitoratzen duela Bilduk mozio honen alde ez egitea, Eibarko baserrietarako bideen aldekoa baita.

Afirma el señor Mendicute que muestra su sorpresa por la abstención de Bildu porque creía que iba a votar a favor; pero que en cualquier caso la moción es una herramienta más para la gestión política del Ayuntamiento y para la toma de decisiones.
Si la mayor pega que tiene Bildu, prosigue, es que la moción plantea cuestiones para el presupuesto, hay que decir que han ofrecido a Bildu transaccionar esto, y se podía haber quitado ese punto sin ningún problema.
Añade que le sorprende y lamenta que Bildu no apoye esta moción, que es para apoyar el acceso a los caseríos de Eibar.

Abanzabalegi andreak dio hala dela, taldeek nahi dituzten mozioak aurkezteko aukera dutela, eta egia dela: PNVak aurrekontuaren aipamena egiten duen zati hori ken zezakeela esan dietela beraiei, baina kasu horretan, mozioa PSE-EErenaren berdina izango litzateke. Hala

Dice la señora Abanzabalegui que es verdad que los grupos tienen la potestad de presentar mociones para lo que deseen y que es verdad que el PNV les ha dicho que podrían eliminar el punto referente al presupuesto, en cuyo caso la moción sería igual a la del PSE-EE;

ere, dio Abanzabalegi andreak, beren botoaren esanahia ez nahastea eskatu du, Bildu ez delako abstenitzen edukiarekin bat ez datorrelako; Andiroak planteatu izan balu, ados egongo liratekela, baina azaltzen du berek ulertzen ez dutena zera dela: mozioak eta mozioak aurkezten ibiltzea, Udalean talde politikoek beste erreminta batzuk dauzkatenean horrelako proposamenak egiteko.

Abanzabalegi andreak gaineratzen du PNVak nahi duen guztia aurkez dezakeela Udal Osoko bilkuran eta nahi duen unean, baina aurrekontuei zuzenketak aurkezteko aukera ere baduela; batzordeetan ere baduela proposamenak aurkezteko aukera. Bere iritziz, dio, horiexek dira Udal Taldeek erabili behar dituzten erraminta zuzenak.

Beraz, Elkarteek, erraminta horiek ez dauzkatenez eskura, mozioak aurkezteko aukera dute.

EAJ/PNV Taldeak aurkeztu duen mozioa bozkatu da eta ez da onartu. Hona hemen emaitza:

Baiezko botoak: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi

pero pide que no se tergiverse el sentido de su voto, pues Bildu no se abstiene porque no esté de acuerdo con el contenido; y que estarían de acuerdo en que lo plantee Andirao, pero explica que lo que no entienden es que una y otra vez se presenten mociones, cuando en el Ayuntamiento los grupos políticos tienen otras herramientas para estas propuestas.

Añade que el PNV puede presentar lo que desee en el Pleno y en cualquier momento, pero que tiene la posibilidad de presentar enmiendas a los presupuestos, y en las comisiones también tiene posibilidad de presentar propuestas, y que considera que estas son las herramientas correctas que deben utilizar los grupos municipales.

Luego, concluye, las asociaciones, como no tienen esas herramientas, tienen la posibilidad de presentar mociones.

Sometida a votación la moción presentada por el grupo EAJ/PNV, no se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu,

Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

PSE-EE Taldeak aurkeztu duen mozio alternatiboa edo aukerakoa bozkatu eta onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Sometida a votación la moción alternativa presentada por el Grupo PSE-EE, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

7. ATALA.

Erdibideko mozioa, PSE-EE, EH-BILDU, EAJ-PNV eta IRABAZI-GANEMOS Udal Taldeek Frankismoaren krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren ordezkarietako batekin batera aurkeztu dutena, talde horrek aurkeztutako jatorrizko mozioaren inguruan egindakoa.

Idazkariak testu hau irakurri du:

"PSE-EE, EH-BILDU, EAJ-PNV eta IRABAZI-GANEMOS udal taldeek honako mozio hau aurkezten dute Frankismoaren krimenen aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren ordezkarietako batekin batera, Udal Oroko Bilkurak onar dezan:

MOZIOA

1.Udal Osoko Bilkurak onartzen du eta Eibarko Udalari eskatzen dio akusazio gisa aurkeztu dadila gure udalerriko frankismoaren biktimekiko Argentinako jurisdikzioan irekitako prozeduran.

2.Udal Osoko Bilkurak onartzen du eta Eibarko Udalari eskatzen dio ahalbidera dezala Estatu espainoleko epaitegietan

PUNTO 7º

Moción transaccional presentada por los Grupos municipales PSE-EE, EH-BILDU, EAJ-PNV e IRABAZI-GANEMOS, y por uno de los representantes de la Plataforma Vasca para la Querella contra los crímenes del franquismo sobre la moción originaria presentada por este colectivo.

La Secretaria da lectura al siguiente texto:

"Los grupos municipales PSE-EE, EH-BILDU, EAJ-PNV e IRABAZI-GANEMOS presentan, junto con uno de los representantes de la Plataforma Vasca para la Querella contra los crímenes del franquismo, la siguiente moción para su aprobación en sesión plenaria:

MOCIÓN

1. El Pleno aprueba e insta al Ayuntamiento de Eibar a que se presente como acusación en el procedimiento incoado en la jurisdicción argentina respecto a las víctimas del franquismo de nuestro municipio.

2. El Pleno aprueba e insta al Ayuntamiento de Eibar a que posibilite que se abran en los juzgados del Estado

ekimen judizialak irekitzeko aukera, gure udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren kontrako krimenetatik erator daitezkeen erantzukizun penalak eta legoken beste edozein erantzukizun argitu daitezen.

Español iniciativas judiciales para el esclarecimiento de responsabilidades penales o del tipo que procedan por crímenes contra la humanidad cometidos por la dictadura franquista en nuestro municipio.

3. Udal Osoko Bilkurak eskatzen dio Eibarko Udalari behar diren bitartekoak erraztu ditzala, gure udalerriko frankismoaren biktimen inguruko dokumentazio, testigantza eta proba oro prozedura penalari erantsi dakion; horrela, frankismoaren zapalkuntza guztien zentsua ahalik eta osatuen egin dadin."

3. El Pleno insta al Ayuntamiento de Eibar a que facilite los medios oportunos para que se adjunte al procedimiento penal toda documentación, testimonio y prueba de víctimas del franquismo de nuestro municipio, para que se elabore el censo más amplio y completo posible de todas las opresiones del franquismo."

Idazkariak dio Kontu-hartzaile jaunak eta berak egindako ohar banatan hauxe jasotzen dutela: Udalak egin nahi dituen akzio judizial guztietan, aurretik txosten juridiko bat egin behar duela derrigorrean, eta txosten hori, oraingo gai hau nolakoa den ikusita, zigor-zuzenbidean aditutako pertsona batek egin beharko lukeela.

Indica la Secretaria que en nota del señor Interventor y de ella se indica que el ejercicio de todas las acciones judiciales por parte del Ayuntamiento requiere de un previo informe jurídico, informe que, dada la materia de que se trata debería de ser elaborado por persona especializada en derecho penal.

Alkate jaunak dio, eztabaidari ekin baino lehen, Mendicute jaunari eta ekimena izan duen kolektiboari eskertu egin nahi diela mozioa erdibidera eramateko eta aho batez aurrera ateratatzeko erakutsi duen prestutasunagatik, baina Batzar Nagusietan aurkeztutako beste mozio batean oinarritzen denez, testuak dio Udala aurkez dadila akusazio gisa "gure lurralde historikoko" frankismoko biktimen kasuan,

Afirma el señor Alcalde que antes de entrar en el debate agradece al señor Mendicute y al colectivo la disponibilidad para transaccionar y para sacar adelante una moción por unanimidad, pero que como es una moción inspirada en otra presentada en Juntas Generales, en el texto se habla de que el Ayuntamiento se presente como acusación en los casos de víctimas del franquismo de "nuestro

eta, horren ordez “gure udalerriko biktimak” jaso beharko litzatekeela.

territorio histórico” y que debería de ser sustituido el texto por “víctimas de nuestro municipio”.

Ondoren Lamarain andreak hartu du hitza, eta esaten du, hasi aurretik, euskazko testuan ere badagoela akatsen bat edo beste aditzetan, aditzak pluralgileak jasotzen dituelako; eta hori gerta daiteke Batzar Nagusiak nominatibo pluralgilea delako.

Interviene a continuación la señora Lamarian quien comienza diciendo que también en el texto en euskera hay un fallo pues se recogen los verbos en plural y que ello puede ser debido a que las Juntas Generales es un nominativo plural.

Udal honek, dio, behin baino gehiagotan salatu du 1936ko kolpea; oker ez badago, azkenenengo aldiz 2012an. Hau, dio, memoria ez galtzeko egiten da; gerra hura eta haren ondorioak eta diktadurarenak ez ahazteko; horrela egin zen gerrako umeen zentsoa, edo Arrateko Interpretazio Zentroa.
Lamarain andreak gaineratzen du bere iritiz garrantzizkoa dela ez ahaztea eta gaia lantzen jaraitzea, grrari buruz lan asko egin direlako, baina haren ondoren etorri zen diktaduraren gainean oraindik asko dago egiteko: oraindik batzeke dauden hainbat testigantza; diktaduraren errepresaliak; preso politikoak; errepresaliatuak eta abar. Mozio honek dio artxiboa eratu behar dela eta aukera bat dela, Udalak eta Ego Ibarra batzordeak lanean segi dezaten.

Más de una vez, prosigue, este Pleno ha denunciado el golpe de 1936, y la última vez cree que fue en 2012 y esto se hace para no olvidar la memoria, ni las consecuencias de la guerra y de la dictadura; y así, se hizo el censo de niños de la guerra, o el Centro de Interpretación de Arrate.
Añade que cree que es importante no olvidar y seguir trabajando el tema, porque se han hecho muchos trabajos sobre la guerra, pero de la posterior dictadura hay mucho trabajo por hacer; los testimonios que están por recoger, las represalias de la dictadura, los presos políticos, los represaliados, etc. y que esta moción dice que hay que conformar el archivo y que les parece que es una oportunidad para que el Ayuntamiento y la Comisión de Ego-Ibarra sigan trabajando.

Geroxeago dio badela garaia gaia bide judizialetik eramateko, oraindik ez delako

Dice más adelante que ya es tiempo de dar el paso de llevar el tema a la vía

bide judizialeko erantzukizunik eskatu. Eta egia esan, dio, urrats hau ematen ari bada, gizarte-mugimenduengaitk eta plataforma sozialengatik izan da.

judicial, pues todavía no se han pedido responsabilidades en la vía judicial, y que la verdad es que si se da este paso es por los movimientos sociales y las plataformas sociales.

Aurrenik, dio Lamarain andreak, Argentinako epaitegietara jo behar izan zuten, eta bide judiziala egin du han auziak eta gaia aurrera atera zen; eta Servini epaileak eman ditu ondoren Espainiako estatuak bere gain hartu ez dituen edo/eta egin nahi ez dituen atxiloketa-aginduak. Bada garaia, instituzioek ere bide judiziala ireki eta biktimentzako egia, justizia eta ereparazioa eska dezaten.

Primero, continúa, se tuvo que acudir a los tribunales argentinos y se abrió la vía judicial, y el tema fue para adelante y más tarde la jueza Servini ha remitido las órdenes de encarcelamiento al Estado Español, pero éste no las ha asumido, por lo que ya es hora de que las instituciones abran la vía judicial para solicitar justicia y reparación para las víctimas.

Amaitzeko esan du Udalak ere bat egingo duela Argentinan zabaldu den bide horrekin; epaitegiek bide judiziala zabaldu behar dutela; eta ausartak izan behar direla, hasierako urratsak beste herrialde batzuetan eman baziren ere, hemen ere urratsak eman behar direlako. Bere Taldea, dio Lamarain andrea, poztu egiten da denak ados jarri direla ikustean. Proposamena egin dutenei eskerrak emanez amaitu du.

Finaliza afirmando que el Ayuntamiento se adherirá a la vía abierta en Argentina y que los juzgados abran la vía judicial y que hay que ser valientes porque los primeros pasos se dieron en otros países, pero que ahora corresponde darlos aquí; y que su Grupo se alegra de que todos estén de acuerdo, así como agradecer también a los proponentes.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Hasteko du esan du Lamarain andreak esandakoaz gain beste ñabardura batzuk ere baduela, agian itzultzaileak zuzen ditzakeenak, eta kontua ez da bakarrik testua pluralgilearekin etortzea, baizik eta eduki aldaketa: bigarrean atalean, epaitegietan “aukera ahalbideratu daitezala” dioenean “Udalak ahalbideratu

Interviene a continuación el señor Mendicute quien comienza diciendo que aparte de lo indicado por la señora Lamarain hay otros matices, que igual puede corregir la traductora, y que no es sólo que el texto venía en plural, sino que hay una modificación de contenido, y así en el punto segundo cuando se habla de abrir en los juzgados “aukera

dezala" jaso behar dela, eta hirugarren atalean "prozedura penalera erantsia izan dadin" dioen lekuan "erantsi dadin" jaso behar dela.

ahalbideratu daitezela" hay que recoger "Udalak ahalbideratu dezala" y en el tercer punto "prozedura penalera erantsia izan dadin" hay que recoger "erantsia dadin".

Jarraitu du esaten badela denbora bat Euskadiko Plataformak frankiskoaren krimenen kontrako kereila planteatu zuela; eta amnistia eman bazen ere, jatorrizko mozioan hainbat erakunderen akordioak jasotzen zirela gizateriaren kontrako krimenen preskripzioaren kontra; besteak beste, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 1994ko Asanblea orokorrean hartutako erabakia.

Continúa en su intervención diciendo que hace tiempo que la Plataforma de Euskadi ha planteado querella contra los crímenes del franquismo, y que a pesar de haber habido una amnistía, se mencionaba en la moción original varios acuerdos de instituciones en contra de la prescripción por crímenes contra la humanidad, y así se menciona el acuerdo de la Asamblea General de la ONU de 1994.

Esan den bezala, 2012an, kereilaren aldeko mozio bat izan zen, eta orain Udalak kereila horrekin bat egitea planteatzen da. Bere Taldeak, dio Mendicute jaunak, zalantzak izan ditu horren gainean, eta hasiera batean beste mozio alternatibo bat planteatu zuen; eta ez oraingo honen edukiarekin konforme ez zeudelako, Udalak kereila bat jartzeko legitimitaterik duenentz zalantzak dituztelako baizik, horren gainean egindako txostenean jaso den bezala. Horregatik, zigor zuzenbidean aditua den letratu batek txostena egitea eskatu du, kereila sar daitekeen ikusteko, eta ekintza-aritze horrek irizpen juridiko bat behar duela.

Tal como se ha dicho, prosigue, en 2012 hubo una moción a favor de la querella, y ahora se plantea que el Ayuntamiento ejercite la querella; y su Grupo ha tenido dudas al respecto, y por ello, plantearon en un principio una moción alternativa; y no porque no estuvieran conformes con el contenido, sino por las dudas en cuanto a la legitimidad del ayuntamiento para interponer una querella, tal como se ha visto en el informe que pone en duda esto y solicita un informe para estudiar la viabilidad de interposición de la querella por letrado especializado en derecho penal y que el ejercicio de acción precisa de un dictamen jurídico.

Edozelan ere, dio Mendicute jaunak, txosten hori kereila sartu aurretik eskatu behar denez, eta mozio hau Udalaren

De todas formas, concluye, como hay que solicitar este informe antes de interponer la querella y como se trata de

jarrera erakustekoa denez, ez azken erabakia, bere Taldeak ez duela arazorik mozioa onartzeko.

una moción que muestra la actitud del Ayuntamiento, y no de la decisión última, su Grupo no tiene inconveniente en aprobarla.

Alkate jaunak esaten du dena dagoela esanda; hau egin nahi denari buruzko borondate-deklarazio bat dela; beste udalerri batzuk ere horrela dute; Batzar Nagusiek honen antzeko mozio bat onartu dute; eta Plataformak bere abokatuak ditu, gai hauetan adituak direnak. Bere iritziz, dio, urrats hau eman duten udalek ere euren artean koordinatu egin beharko lirateke ekintzaren indarra bistaratzeko.

El señor Alcalde afirma que está todo dicho, que ésta es una declaración de voluntades de lo que se desea hacer, que otros municipios lo han hecho, que las Juntas Generales han aprobado una moción con estas características, y que la Plataforma tiene sus abogados especializados en estas cuestiones; considerando también que los ayuntamientos que han dado este paso se tienen que coordinar para visualizar la fuerza de la acción.

Alkateak esaten du Memoriaren inguruan lantzen ari den testuinguru horren barruan, bere ustez, ikasgai bat dagoela oraindik egiteke: gertatu ziren gauzak bide judizialetik gaitzestea, eta areago oraindik Eibar bezalako herri batean, historiaren une jakin hartan asko sufritu baitzuen.

Continúa afirmando que dentro del contexto en el que se está trabajando sobre la Memoria, cree que hay una asignatura pendiente, que es la reprobación en vía judicial de las cosas que pasaron, y más en una ciudad como Eibar, que sufrió mucho en un momento dado de la historia.

Amaitzeko esan du orain urrats instituzionala ematen ari dela eta gero etorriko dela urrats praktikoa, izan ere, Idazkariak dioen moduan, aztertu egin behar baita egingo dena. Alkateak dio honen antzeko zerbait onartu zela etxegabetzeekin eta funtzionatzen ari dela, etxegabetzeak gerarazteko ekimenak burutu dira. Bere ustez, dio, azpiegitura bat sortzea baino gehiago, Udalak beste tresna

Finaliza afirmando que ahora se dá el paso institucional, y que luego vendrá el paso práctico, porque como dice la Secretaria, hay que analizar lo que se va a hacer, y que algo parecido se aprobó con el tema de los desahucios, que está funcionando y que se han llevado a cabo iniciativas que han paralizado desahucios; por lo que cree que más que crear una infraestructura, el

bat gehiago izan behar du frankismoaren kontrako kereilen gai honetan sortu nahi den engranaje horretan.

ayuntamiento debe de ser un instrumento más dentro del engranaje que se quiere crear en el tema de las querellas contra el franquismo.

Mozioa bozkatu eta aho batez onartu da, testuan ikusitako akatsak zuzenduta.

Sometida a votación la moción, se aprueba por unanimidad, con la corrección de los errores advertidos en el texto.

8. ATALA Galderak eta erreguak.

PUNTO 8º Ruegos y Preguntas.

-Ibañez andrearen galdera. Esaten du, Batzordean ez denez erantzunik ematen jakin, hauxe nahi duela galdetzea: ea Gobernu taldeak eperik duen aurrekontua egiteko, izan ere, urte honetan jakindakoa jakinda, errore bat izango litzateke berriro errore berbera egitea.

- La de la señora Ibañez diciendo que desea preguntar, ya que no se ha sabido contestar en la Comisión, si el Equipo de gobierno tiene plazos para la elaboración del presupuesto, ya que sabiendo lo que se sabe este año, sería un error volver a cometer el mismo error.

Alkate jaunak dio aurekontuaren zirriborroa ari direla egiten, Gobernu taldeak onartu eta Oposizioari helarazteko. Eta hori ahalik eta azkarren egingo dela eta Oposizioari denbora asko emango zaiola zuzenketak aurkez ditzan, eta negoziatzeko.

Afirma el señor Alcalde que el presupuesto está en fase de elaboración de un borrador para aprobarlo por el Equipo de gobierno y trasladarlo a la Oposición, que se hará cuanto antes, y que se dará un plazo amplio a la Oposición para que presente enmiendas, y negociarlas.

- Lamarain andreak dio askotan egin duen galdera dela, Parte-hartze Ordenantzari buruzkoa, eta dagoeneko ez dakitela, ez zer galdetu eta ezta non galdetu ere.

- La de la señora Lamarain diciendo que es una pregunta reiterativa, y que es sobre la ordenanza de participación, sobre la que ya no saben ni qué preguntar ni dónde.

Idazkariak dio Ordenantza hori aztertzen ari dela; gai konplexua eta berria dela, eta araudi berria dagoela horren inguruan; hala ere —dio— oraingo kasu honetan, bere lana txosten soil bat egitetik haragokoa dela. Horregatik, komenigarritzat ikusten du lan-batzorde bat egitea Udal Taldeekin gai hori lantzeko, gauza batzuk berriro birplanteatu beharrekoak direlako, araudi atera berriaren eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko lege berriaren aurrean.

Afirma la Secretaria que tiene en estudio dicha Ordenanza, que es un tema complejo y novedoso, sobre el que hay nueva normativa, pero que considera que en este caso su intervención debe de ir más allá de la elaboración de un informe, por lo que vería conveniente una comisión de trabajo con los Grupos Municipales para abordarla, ya que hay cuestiones que se deberían de replantear ante la nueva normativa y la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

Lamarain andreak dio ados dagoela Idazkariak esandakoarekin baina gai hau haien eskuetatik duela urtebete ere pasa zitekeela.

Indica la señora Lamarain que está de acuerdo con lo planteado por la Secretaria, pero que podía haber pasado el tema a manos de los Grupos hace casi un año.

- Lamarain andreak galdetu zein izango den Plan Estrategikoaren hurrengo urratsa.

- La de la señora Lamarain preguntando cuál será el siguiente paso del Plan Estratégico.

Alkate jaunak dio hori bere erantzukizuna dela, Bozeramaileen Batzarrean onartzeko bizpahiru asteko epe bat emango zuela esan baitzuen; baina, egia esanda, ahaztu zitzaiola gai hau Bozeramaileen hurrengo Batzarraren eguneko aztergaian sartzea.

Afirma el señor Alcalde que es responsabilidad suya, ya que dijo que iba a dar un plazo de dos o tres semanas para aprobarlo en Junta de Portavoces, y que la verdad es que se le olvidó incluir el tema en el orden del día de la siguiente Junta de Portavoces.

- Lamarain andrearena. Esaten du Txontako Mahaiaren azkeneko bilkuran azkeneko bilera izango zela esan zen eta bere Taldea ez dagoela ados horrekin, baina nahiko lukeela jakin, zeintzuk diren emango diren urratsak, errehabilitaziorako diru-laguntzen inguruan eta diru-zuzkideren gainean dagoena auzoko bizilagunei ezagutzera emateko.

- La de la señora Lamarain diciendo que en la última reunión de la Mesa de Txonta se dijo que iba a ser la última, decisión con la que su Grupo no está de acuerdo; pero que le gustaría saber qué procesos se van a dar para dar a conocer a los vecinos los pasos que se dan sobre rehabilitación y sobre dotaciones económicas.

Telleria andreak dio Txontako Mahaiak funtzionatzen zuenean ere ez zutela parte hartzen auzoko guztiek; informazioa dauden elkarteetako ordezkariei ematen zitzaiela. Esaten du lehen ere aipatu zuela hau: bereiztu egin behar dela, alde batetik, VISESA egiten ari dena, eta bestetik, errehabilitazioari buruz interesatuei ematen zaien informazioa, informazioa elkarteen ordezkarien bitartez eman ahal izateko, eta Udala beti dagoela prest informazioa emateko, Mahaia izan ala ez izan.

Afirma la señora Telleria que cuando funcionaba la Mesa de Txonta tampoco acudían a la misma todos los vecinos, y que la información se trasladaba a los representantes de las asociaciones que existen, que ya ha comentado que hay que diferenciar la información sobre lo que está realizando VISESA y la información a los interesados en la rehabilitación, a los efectos de dar información a través de los representantes de las asociaciones y que el Ayuntamiento siempre está dispuesto a ofrecer información exista o no la Mesa.

Lamarain andreak dio bere iritziz egin behar dena oso garrantzitsua dela han bizi direnentzako, denbora asko daramatelako itxoiten, eta kontuan hartuta gaian aurrera egiteak zenbat kostatu duen, garrantzizkoa izango litzatekeela informazioa txandaka ematea, beste auzo batzuetan egin den bezala.

Afirma la señora Lamarian que considera que lo que se va a hacer es muy importante para los vecinos, los cuales llevan mucho tiempo esperando, y que teniendo en cuenta lo que ha costado avanzar en el tema, sería muy importante dar información por turnos, al igual que se ha hecho en otros barrios.

- Ibañez andreak galdetu du ea Gobernu-taldeak oraindik ez dituen jaso sailetako proposamenak datorren aurrekonturako, eta zuzenketak egiteko epe handi bat eman behar den; legeak esandakoa —aurrekontua abendurako onartuta edukita izatea— beteko den edo beste aurreikuspen batzuk dauden.

- La de la señora Ibañez preguntando si el Equipo de gobierno cara al futuro presupuesto, todavía no ha recogido las propuestas de los departamentos, y que si se va a dar un plazo amplio para enmiendas, si se va a cumplir la legalidad en cuanto a tener aprobado el presupuesto para diciembre, o si hay otras previsiones.

Alkate jaunak dio aurreikuspena beti izan dela abenduan onartzea, baina gero, zirkunstantziek eta negoziazioek epeak atzera ditzaketela, eta merezi duela epeak pasatzen uztea eta berak hori bere gain hartzen duela, garrantzizkoena ahalik eta adostasun gehineko aurrekontu batzuk onartzea delako.

Afirma el señor Alcalde que siempre la previsión es aprobarlo en diciembre, pero que luego, las circunstancias y las negociaciones pueden retrasar los plazos; y que él asume que sí merece la pena dejar pasar los plazos, porque lo importante es aprobar unos presupuestos lo más consensuados posibles.

Ibañez andreak dio adosteaz gain 2016ko esperientzia erakusten ari dena hauxe dela: gauzak epe barruan onartzea dela garrantzizkoena, eta berriro errore berdinean eroriz gero, zerbaitek huts egiten duela.

Afirma la señora Ibañez que independientemente de consensuar, la experiencia del 2016 está demostrando que aprobar en plazo es más que importante y que si se vuelve a incurrir en el mismo error, algo falla.

Alkate jaunak galdetu dio erregu bat edo galdera bat den, erreguen eta galderen atala delako hau.

Pregunta el señor Alcalde si es un ruego, o una pregunta, porque se está en el punto de ruegos y preguntas.

- Aguirre andreak galdetu du zerbait aurreratu den aurrekontu parte-hartzaileen gai horretan, horren inguruko mozio bat onartu zelako, herritarren parte-hartzearenarekin batera.

Alkate jauank dio herritarrek parte hartzeko prozedurak bideratu behar direla aurrekontuak egiteko orduan, eta hemendik denbora gutxi barru horren inguruko proposamenak egingo direla.

- La de la señora Aguirre preguntando si se ha hecho algún avance sobre presupuestos participativos, ya que se aprobó una moción al respecto, junto con la participación ciudadana.

Afirma el señor Alcalde que hay que articular procedimientos de participación ciudadana en la elaboración de los presupuestos, y que próximamente se plantearan algunas propuestas al respecto.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko bederatziak eta erdiak izanik, Alkate jaunak bilerari amaiera ematen dio, eta guzti honetaz, nik Idazkari Orokor naizen honek, fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas treinta minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.